



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko apirilaren 26a. 35. zenbakia. Dohain banatzen da.



ahoz aho
belaunez belaun

Gehigarri berezia:
euskararen transmisioa



Foto
Echarri

- ORDUBETEAN ERREBELATUA
- ARGAZKI ESTUDIOA
- LEHEN JAUNARTZEAK
- EZKONTZA ERREPORTAIK
- MARKOZKETA
- ANPLIAZIOAK BEREZIKI

Elizondo Plaza, 2 atzealdea - ☎ 59 41 48 - ANDOAIN

Juan de Urbieta, 8 - ☎ 55 29 39 - HERNANI — Kale Nagusia, 17 - ☎ 36 14 84 - LASARTE

TOLOSALDEA L.H. INSTITUTUA (Publikoa)



***IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE
*LANGILEEK IKASTEN DUTE**

INSTITUTU honen bidez lana aurkitu dute:

- 1994.ean 52 ikaslek
- 1995.ean 60 ikaslek

1995.ean INSTITUTU honetan 130 langilek ikastaroak egin dituzte.

***KALITATEA
ERREALITATEA DA**

HEZKUNTZ DEPARTAMENTUAK babestutako:

- Kalitate Proiektua dugu.
- Ikastetxe pilotoa gara.
- Kalitate Batzordea martxan dago.
- Foro Gipuzkoa XXI-aren aholkularitza dugu.

**□ TOLOSALDEAKO HEZKUNTZ
PROIEKTU PUBLIKOAREN
PARTAIDE ETA BULTZATZAILEA**

***JADANIK INSTITUTUAK
"LOGSE" SISTEMA EZARRIA DU**

- ◆ Tolosaldean, "LOGSE" Batxilergotan esperientzia duen Ikastetxe bakarra.
- ◆ Aurten ZIKLO FORMATIBOAK martxan ipiniko dituen.

ESKEINTZA AKADEMIKOA

- I.E.E. (REM) 14-16 urte
- LOGSE Batxilergoa: **TEKNOLOGIKOA**
LOGSE Batxilergoa: **GIZA-ZIENTZIAK**
- **ZIKLO FORMATIBO eta MODULO PROFESIONALAK:** Mekanika, Elektrizitatea eta Informatika
- L.H. balioaniza eta egokitua (Z.I.G.)

AURREMATRIKULA

NON?: **L.H. Institutuan bertan**
Santa Luzia Auzoa, 17 **TOLOSA**
NOIZ? Maiatzaren 2tik 17ra bitartean
(bulego orduetan)
Informazio gehiago: ☎ 65.11.47-65.06.64

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joseba Erkizia: "Gaurko umeak. elebidunak"
2. **GALDEZKA.**
Eta zuk, zer diozu. Maiatzaren lehenari buruz?
3. **LARRAUL.**
Haurrentzako ekintza ugari.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Leizaur irratia berriro gure artean.
Erromara erromes.
Errealaren peñen II. topaketak.
7. **ASTEASU.**
Txistu ikastaroa.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Gobernu batzordea auziperatuta.
IV. Loatzo lasterketa.
10. **ZIZURKIL.**
Andatza Eguna.
11. **BASERRIA.**
Asteasu: kiwi landaketa.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Santakruzak 96
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Jose Luis Agote: "Ordenadoreek ez dute gure bizitza kontrolatuko"
- 16-17. **KIROLA.**
Aerobic-a, diziplina propioa duen kirola.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15. 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Inaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiarzabal
Argazkiak: Manu Mujika, FOTO TRUCHUELO.
Andoaingo Udala, Euskaldunon Egunkaria **Komikia:** Beñat Azurmendi **Publizitate arduraduna:** Fernanda Iruza **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri.
Inprimategia: Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 11354-0614
Tirada: 3.850 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gainera inolako erantzukizunik.



GAURKO UMEAK, ELEBIDUNAK



JOSEBA ERKIZIA ITOITZ

Ohituta gaude aldian behin euskararen gainean eztabaida nola pizten den ikusten. batzuek euskarak gizartearen bete behar duen eginkizuna auzitan nola jar zuten duten entzuten. Jende asko euskararen kontra dagoela ere pentsarazten dute horrelako is-tituek batzuetan. Euskal gizarte, ordea, euskararen aldeko apostu isil eta seguru bat egiten ari da aspaldi honetan, gehiegi azpimarratu gabe eta ia oharkabean geratzen den apostu zintzo bat.

Orain gutxi, Euskal Komunitate Autonomoan aurten eskolan hastekoak diren umeen aurrematrikulazioaren berri izan dugu. Datuon artean, badago arreta haundiz aztertzea merezi duen ha-maika, gaurko gurasoek (beraz, oro har, gaurko herritar gazte-hel-duek) etorkizunari buruz duten ikuspegia erakusten dutelako. Hemen, hala ere, datu horiek euskarari eta elebitasunari buruz zer adierazten diguten hartu nahi dugu solasgai.

Sare publikoa eta kontzertatua batera hartuta, aurten hiru urte egiten dituzten eta ofizialki lehen aldiz eskolaratzen diren umeak 16.397 dira. Horiek artean 2.990 ikasle A eremuan (dena gaztele-raz, euskara asignatura) aurrematrikulatu dira, 4.910 B eremuan (euska-raz eta gaztele-raz) eta 8.432 D eremuan (dena euskaraz, gaztele-raz asignatura). Gainerako hirurogeitabostak egocera bereziak dira.

Beraz, nabaria da ikasketak euskaraz egitea hautatzen dutenen nagusigoa. Urte urte areagotzen ari da gainera, izan ere iaiztik hona berriz ere A eredia jaitzi egin da, B eredia zertxobait igo eta D eredia nabarmen hazi da. Aukera elebidun/euskaldunaren aldeko jarrera hori are nabarmenagoa da Gipuzkoan. Esan dezagun, e-sate baterako, Gipuzkoa osoan 216 ikasle bakarrik aurrematrikulatu di-rela A eremuan; 202 ikasle kontzertatuetan eta 14 besterik ez publikoetan. Horrek esan nahi du Gipuzkoan gaur egun «sallues-pena» dela eredu euskaldunean edo elebidunean matrikulatzen ez dena.

Bestalde, bada beste kontu adierazgarri bat, azpimarratzekoa baita Bigarren Hezkuntzan aurten nabarmen jaitzi direla B ereduko aurrematrikulazioak, hain zuzen ere D eremuan igo diren hein be-rean. Bestela esanda Lehen Hezkuntzako ikasketak euskaraz eta gaztele-raz egiten dituzten ikasle askok euskaraz bukatzen ditu Bi-garren Hezkuntzakoak. Horrek guztiak euskararen erabilerarako funtsezkoak diren bi faktore behintzat aldatzen ditu errotik: lehen-bizi, gaur egun adin batetik gora euskaraz ia tutik ere ez dakien jende ugari dagoen bitartean, gaurko gazte eta haurren artean zaila da horrelakorik aurkitzea; bigarren, euskaraz dakiten herritarren artean gero eta gehiago dira alfabetatuta daudenak eta, beraz, bizi-tzaren arlo anitzetarako hizkuntz gaitasuna dutenak. Begi bistakoa da bi faktore horiek aurrera begira euskararen garapenerako izan dezaketean garrantzia.

Hortaz, euskararen normalkuntzaren zerumugan su artifizialak ikusten ohituta bagaude ere, argi dago jendeak nondik nora ikus-ten duen etorkizuna eta etorkizun horretan leku garrantzitsua ikus-ten diola euskarari.

Beste hitz batzuetan esanda, euskal gizarte euskararen alde dago.



Aldizkari honen Eusko Jaurerriko Kultur Sarearen Laguntza jasotzen du



Aldizkari honen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Departamentuaren Laguntza jasotzen du

ETA ZUK ZER DIOZU, MAIATZAREN LEHENARI BURUZ?

Maiatzaren lehena, Langilearen Eguna: langile direnak eta ez direnak jai hartzen duten eguna. Maiatzaren lehenean enpresa gehienek itxiko dituzte ateak, eta langileek jai izango dute. Joera guztietako sindikatuek antolatuko dituzte ekitaldi eta manifestazioak. Garai batean, langile

klasearen aldarrikapenen egunik seinaltuena izan ohi zen. Gaur egun langile direnak eta ez direnak jai egiteko baino ez dute gehienetsuenetan eguna aprobetxatzen. Kanean galdetu dugu Maiatzaren lehenari buruz, Langilearen Egunari buruz herritarrek duten iritzia.



Calisto Miguel, langilea. Andoain.

Ni langilea naiz, eta niretzat egun garrantzitsua da: langileen aldarrikapenak gogorarazteko eta gure eskubideak eskatzeko eguna da. Urtero joaten naiz antolatzen diren manifestazioetara.



Inazio Sarasola, langabea. Aduna.

Ni lanik gabe nago, eta ez dut egun horretan ezer egiten: herritik ere ez naiz irteten. Egun hori beste jaiegun bat bezalakoa da; lanean ari nintzean behintzat, horixe egiten nuen.



Especiosa Cuello, langabea. Asteasu.

Nik jai egiten dut. Baina egun horretan lanera joatera behartuko banindute, joan egingo nintzateke. Egundordea, langabezian nago. Ez dut sindikatuek egiten dituzten manifestazioetan parte hartzen. Nik nahi dudanguza bakarra lana da.



Aritz Irigoien, ikaslea. Andoain.

Ni ikaslea naiz, eta ez dut inoiz antolatzen diren ekitalditan parte hartu. Hala ere, borroka eguna baino gehiagor, jai eguna dela iruditzen zait. Langilearen Eguna denez, langileek merezi dute egun horretan jai hartzea.



Pedro Intxausti, langabea. Billabona.

Ez dakit zer ospatzen den egun horretan, ez daukat ideiarik (guk eman diogu egun horren izaeraren berri). Orain langabezian nago, baina orain arte jai egin dut egun horretan. Gainera, sindikatuen ekimenak eta abar ez ditut jarraitzen. Ez dakit asko gai horri buruz.



Amaia Perez, etxez etxeko laguntzailea. Zizurkil.

Jai izango dut egun horretan. Nik behintzat, jaiegun arrunt bat bezala igeroko dut. Astelehenetik larunbatera egiten dut lan, eta beraz, egun horiek aprobetxatu egin behar dira. Hala ere, ez dut egunean ordu asko lan egiten.



HOL - ATZ



VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

minikost


LIBURUDENDA
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57 -
ANDOAIN

HAURRENTZAKO EKINTZA UGARI

Haurren arteko harremanak sendotzea dute helburu

Muskil elkarteak astelehenero antolatzen ditu haurrentzako ekintzak herrian. Ordubeteko saioak egiten dituzte, arratsaldeko seietatik zazpietara, eta sei ume inguru biltzen dira. Jolasak eta kirola egiten dute haurrek, eta helburua, haurrak elkarren artean ezagutzea da. Era berean, herriari bizitasuna eman nahi diote ekimen honen bitartez.



Muskil elkarteak ekintza ugari antolatzen ditu Aiztondoko eta Tolosaldeako eskualdean. Egiten dituzten aldian aldiko ekintzez gain, astero antolatzen dituzte haurrak jolasean ibiltzeko saioak herri ezberdinetan. Larraulen udaletxe azpiko lokaletan biltzen dira astelehenetan hiru urtetatik bederatzi urte bitarteko haurrak. Jolasak, kirola eta antzeko ekintza gehiago egiten dituzte bertara hurbiltzen diren haurrek. Ekimen honekin, baserri ezberdinetan eta elkarrengatik urruti bizi diren haurren arteko harremanak sendotu nahi dituzte.

Larraulgo haurrek Muskilek antolatzen dituen beste ekintzetan ere hartzen dute parte: esate baterako,

Gabonetako oporretan herrian antolatzen duten ludotekara joaten dira. Bestalde, beste herrietan antolatzen diren udaleku eta jolasetara ere joan ohi dira: Asteasun udan antolatzen duten udaleku irekian ere parte hartzen dute.

Dantza ikastaroa

Egun berean, astelehenetan alegia, dantza ikastaroa izaten da udaletxe azpiko lokaletan. Arratsaldeko bostetatik seirak bitartean aritzen dira dantzan haurrak, eta euskal dantzak ikasten dituzte. Adin ezberdinetako haurrak dira ikastaroan parte hartzen dutenak, eta jaietan saio politak eskaintzen dituzte herriko plazan.



Antton Amonarriz Otegi

(Larraulgo alkatea)





MARAMENDI
KULTUR
BAZKUNA

AIURRI

*Milesker zure laguntzagatik
zure gizatasunagatik
Eskerrak mila!*

BASERRIAK TXUKUNTZEKO LORAK

**Maiatzaren 12an
lora-saltzaile bat
etorriko da herrira**

Baserriak txukuntzeko eta herria politago edukitze ko dirulaguntzak eman-go ditu Udalak. Etxea txukundu eta hornitzeko baldintza batzuk bete behar dira, eta horietako bat lorak jartzea da. Herri-tarrei lana errazteko, maiatzaren hamabian eguerdian lora-saltzaile bat etorriko da herrira. Lora-saltzaileak lora eta landare ugari ekarriko ditu.

ERROMARA ERROMES

Ama Kandida, Gipuzkoako lehenengo beata

Hamabost egun barru irtengo dira Erromara erromes 140 andoaindar inguru. Autobusez egingo dute batzuek bidaia, hegazkinez besteek; denak maiatzaren 12an beatifikatuko duten Ama Kandida andoaindarraren elizkizuna jarraitzera doaz. Berrozpe etxeko alabak, Andoainen ezezik, Espainia osoan, eta baita Hego Amerikan ere badauzka jarraitzaileak. Egun seinalatu horretan Erroman guztiak biltzea espero dute Berrozpeko Jesusen Alabek.

Kaletxikiko bizilagunak dira andoaindar gehienak, eta aspaldi ari dira gogo betez bidaia eta ospakizuna prestatzen. Berrozpe etxeko mojen esanetan, beatifikazioak Ama Kandidaren bizitza eta lana hobeto ezagutzera emango du: *"Ebangelioa ez da teoria butsa; ebangelioa bizitza bilakatzen da jende.xebe askorengan"*, esan digute Berrozpen.

Beata izendatu aurretik Elizak aintzakotzat hartu zuen Ama Kandidak

haurren eta emakumeen artean hezkuntza arloan eginiko lana. Baina minbizia zeukan Segoviako emakume bat Ama Kandidaren bitartekaritza sendatu dela egiaztatu ondoren erabaki du Elizak andoaindarra beata izendatzea. Beata egin ondoren, santa izendatzeko eragozpen handirik ez da. Momentuz Ama Kandida Gipuzkoako lehenengo beata da.

Erromako ospakizunen ondoren, Andoainen eskorreneko meza eskai-



niko da parrokan. Hala ere, Ama Kandidaren aldeko ekintzak ez dira bere horretan amaituko; maiatzaren bukaeran Brasildik erromes etorritako andoaindarraren jarraitzaile ugari espero dituzte Berrozpe etxean.

MARTIN UGALDE HERRIAN

"Pedrotxo", bere bigarren elaberria aurkeztu zuen

Larramendi Kultur Bazkunak eta Elkar argitaletxeak antolatu zuten Martin Ugaldere "Pedrotxo" elaberriaren aurkezpena herrian. Aurkezpen egunean Elkar argitaletxeko Xabier Mendiguren idazlea eta Joan Mari Irigoien idazlea izan ziren. Kultur Etxeko areto nagusian Martin Ugaldere aspaldiko lagunak eta gaur egungo irakurleak bildu ziren.

Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakari den Jon Unanuek argitu zituen ekitaldiaren arrazoiak: *"Martin Ugalde, Bazkuneko lehenengo kide delako batetik; bestetik, merezimendu handiko andoaindarra delako; eta azkenik, Martinek, herritik kanpo egon arren, beti eraman duelako Andoain bihotzean eta gogoan, eta obra berri hau borren frogarri bat baino ez da"*. Joan Mari Irigoienek hitz hunkigarriak eskaini zizkion Ugaldere, bizitza osoan abertzale eta idazle gisa, egin duen lanagatik eta hartu dituen erabakietan izan duen askatasunagatik. *"Bizitzak berak sartu zuen nobela batean Martin"*, esan zuen Altzakoak, Martinek bizitzan zehar jasan behar izan dituen gorabehera guztiak aipatuz.

"Nobelako gertaera asko —argitu zuen idazleak— neri gertatutakoak dira; baina "Pedrotxo" ez da nobela autobiografikoa". Martin Ugaldere 14 urte zituela egokitu zitzaion 1936ko gerra bizitzea, "gerrak markatuta utzi ninduen betiko", horregatik aukeratu dut Gerra Zibilean girotutako istorioa. Eta nobelan kontatzen diren gertaerei dagokienez, nobelaren protagonista den Pedrotxok eta Martin Ugaldere badute nolabaiteko antzekotasunik ere: gerran galdutako aita desagertuaren bila aritu izan dira biak urte askotan.

Liburuaren aurkezpenarekin batera Kultur Etxean izan ziren herritarrak Martin Ugalderekin solasean luze aritzeko aukera izan zuten.



Martin Ugalde aspaldiko lagunak inguratuta egon zen

ERREALAREN LAGUNARTEEN II. TOPAKETAK

Larunbatean Andoaingo jokalaria ohiei omanaldia

Asteazkenean entrenatu zuen Errealak Etxerrietako futbol zelaian. Horrela eman zitzaien hasiera "Andoaingo Errealaren jarraitzaileak" lagunarteak antolatutako II. topaketei. Larunbatean herriko jokalaria ohiei omenaldia egingo zaie Arrate frontoian.

Lehenengo topaketak Deban izan ziren Deban, eta Debakoaren proposamena onartu ondoren, aurten Andoainen izango dira topaketak. Euskadin 200 lagunarte inguru badira, eta horiek biltzeaz gain, Euskal Herriaz kanpo dauden besteren batzuk herrira etortzea ere espero dute. Andoaingo lagunartearen lehendakari den Miguel Camposen esanetan.

Honako ekintzak antolatu dituzte II. topaketa hauetarako: bihar goizeko 10.30etan txistularien kalejira izango da; 18.00etan Kultur Etxean mahaingurua antolatu dute. Puztehartzaileak honako hauek izango dira: Javier Expostio, Roberto López Ufarte, Jesus Mari Zamora, Inaxio, Kortabarría eta Pello Artola, moderatzaile lanak Inaki de Mujika kazetariak egingo ditu; 19.00etan Txalaparta txaranga kalez kale ibiliko da, 21.00etan lagunarteen afaria izango da Arrate pilotalekuan, eta bertan herriko Errealaren jokalaria ohiei omenaldia egingo zaie: Mendiluze, Esnaola, Artola anaiak, Corcuera, Arano eta Loinaz. Afaria bitartean Ertizka eta Mariachi musika taldeek animatuko dute giroa. Egitarauari amaiera emateko Goikoplazan Iratxo eta Mariatxi

taldeen saioa izango da afalondoan. Bestalde, larunbatean emango zaio amaiera Kultur Etxean astean zehar ikusgai egon diren Errealaren argazki zaharren erakusketari.

1992an sortua

"Peña Aldrige" izena zeukan taldeak 1992an, sortu zenean. Futbol taldean sartu zen lehenengo atzerritarrari harrera egin eta gure artean integratzen laguntzeko asmoz sortu zen Andoaingo taldea. 1992an Kodro bosniarra etorri zen, eta berarekin lan berbera egin zuten. Orduan aldatu zuen taldeak izena, eta "Andoaingo Errealaren jarraitzaileak" izena hartu zuen. Gica Craivcanu errumaniarra dute gaur egun lagunartean.



Gotzon Huizi, Antonio Salas, Andoni Iraola eta Miguel Campos

EUROGAZTE BATASUNA

Frantzia, Grezia eta Portugaleko 23 gazte herrian

Eurogazte Batasuna La Salle-Berrozpe ikastetxearen 50. urtemugaren ospakizuna dela eta, antolatutako beste ekitaldietako bat da. Frantziako Bourges, Greziako El Pireo eta Portugaleko Barcelos-eko La Salleko 23 ikasleek eta zazpi irakasleek ia astebete igaro dute gure artean. Europar Batasunak eskaintzen duen kultura aniztasunaz jabetzeko antolatu izan dituzte lehenago ere horrelako topaketak.

Herriko hogei familien etxeetan egon dira gazteak. Dena den, etxean egoteko ere denbora handirik ez dute izan, izan ere ekintzaz betetako bost egun igaro dituzte: besteak beste, eta herriko udal agintariak udalartean harrera egin eta ongietorria eman ondoren. Berrozpe Etxea bisitatu zuten Andoainen. Herritik kanpo Diputazioan izan ziren, Pagoetako parkea bisitatu zuten, Loiolako santutegia ezagutu zuten, eta itsasertzeko herriak ezagutzaz ibilaldia egin zuten.

Atzerritarrek gure hizkuntza, ohiturak eta beste hainbat ezaugarri ezagutzeaz gain, Andoaingo La Salleko ikasleek ere Frantzia, Grezia eta Portugal hobeto ezagutzeko aukera izan

dute. Etorri ziren lehenengo egunean herrialde bakoitzeko ezaugarriak erakusten zituen ikusentzunezkoa ikusteko aukera izan zuten gazte guztiek.

Aniztasunaz jabetu

Topaketan antolatzaile izan den Gazteleku-La Salle gazte elkartearen esanetan, Europar Batasuna deituriko proiektu politiko, kultural eta sozialaren erakuntzan jarraitu asmoz, herrien eta kulturen pluraltasunean eta aniztasunean aurrea egitea izan da ekintzaren helburua.



LEIZUR IRRATIA BERRIRO GURE ARTEAN

Gaur hasiko da emititzen FM 99.5 sintonian

Irratia orain dela sei urte sortu zen Leizur euskaltegiaren ekimenez, bertako ikasleek euskara praktikan jartzeko aukera izan zezaten. Kilometroak egunean egin zuten, hain zuzen ere, lehenengo saioa. Gaur hasiko dira berriro emiti-tzen, lehen bezala euskara hutsean: garai bateko ahotsak izango ditugu gure artean, programazioa berriz, aberatsa eta erakargarria izango da.



Lebengo partaideek ekin diote berriro lanari

Ostiraletan arratsaldeko 18.00etatik 22.00ak bitartean Euskalduna mendigoizale taldeak zuzendutako mendiarri buruzko irratsaioa, herriko gai interesgarriren baten inguruko debatea, musika saioa eta albistegia izango dira saiorik nagusienak. Larunbatetan berriz, 10.00etan hasi eta 14.00ak bitartean Bertso Eskolak zuzendutako bertso saioa, sukaldeko programa, haurrentzako saio berezia, magazina, kirol irratsaioa eta albistegia izango dira.

Orain, lehen bezala, andoaindarren partehartzeaz gauzatuko den irrati emisora egin nahi dute proiektu honen bultzatzaileak, horregatik herritarrek antolatu diren lehiaketetan parte hartu eta sariak jasotzeaz gain, debatan eta magazinean zuzenean parte hartu ahal izango dute 59 07 44 telefonora deituz, edota emisora-ara edozein eratako mezu helarazi nahi badute, 59 32 11 telefonora dei daiteke.

Ateak irekita

Berrikuntzen artean publizitateak irratan izango duen lekua aipatu behar da. Horretarako Leizur irrati-ko kideak hasiak dira herriko dendarietara beren eskaintza egiten, eta irrati-ko kide den Ainhoa Aiarzak adiera-

zi digunez, orain arte behintzat, oso harrera ona egin diete: "Badirudi, jendeak ilusioz hartu duela irratiaren berpiztea". Bestalde, entzuleen harrera beste hainbestekoa bada, emisio orduak gehitzea gustatuko litzaiekeela adierazi digu.

Leizur irratiaren bizitzaren aldi berri bati ekin nahi diote gaur egun lanean buru-belarri ari diren hamar lagunek: hala ere, edozein herritarren ideiak eta lana ongietorria izango dira irratan. Era berean, era batera edo bestera, herritar guztiengana iritsiko den irrati egin nahi dute Leizur irrati-ko kideek.




ASESORIA GESTORIA ASEGURUAK	<h2>ALDAMA - TAPIA</h2> <hr/> <h3>KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!</h3>
Kaleberria 22 Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67	20140 ANDOAIN

ESTETIK	A M A I A
<ul style="list-style-type: none"> • Gorputzerako tratamenduak "GENETIK" erabiliz • Materia aktiboekin konposatuak "ZELULOTERAPIA" 	
Kale Nagusia 49 ANDOAIN ☎ 30 06 69	

FERRETERIA <h2>GOROSTIDI</h2> BURDINDEGIA
SUKALDERAKO TRESNERIA
Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

<h1>S T O P</h1> <h2>LIBURUDENDA</h2>
TESTU LIBURUAK AUKERA ZABALA LIBURUTAN (Ingelese, frantsesez, italieraz...)
Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03


GOSARIAK - APERITIBOAK BILARRA <h2>GIRO EDERRA</h2>
Kale Nagusia, 20 - ANDOAIN

TXISTU IKASTAROA

Iñaki Letamendia ari da azken hogei urteotan irakasten

Asteasuar askok ezagutzen dute Iñaki Letamendia tolosarra, eta horietako batzuk solfeo nahiz txistua ikasi dute berarekin. Egun herriko bost neska eta Larraulgo mutiko bat joaten dira ikastarora; hamabitik hogeita bat urte bitartekoak dira guztiak. Herriko jaietan kontzertu bat eskainiko dute, eta diana ere joko dute, besteak beste. Oraingo ikasle guztiak talde berean sartu eta gazteagoekin talde berria sortuko lukeela dio Letamendiak.



Txistua ondo jotzen ikasteko solfeoa ondo ikasita edukitzea behar-beharrezkoa dela esan digu Iñaki Letamendiak: *"Bi edo hiru urtez solfeoa erakusten diet, txistua ondo jotzeko behar duten oinarria edukitzeko"*. Astean bi aldiz dituzte klaseak, eta hiru ordu laurdeneko saioak izaten dira. Klase bateko lehenengo ordu erdian, txistuarekin ariketak egiten dituzte, eta azken ordu laurdenean, abesti bat jotzen ikasten dute. *"Dianak ondo jotzeko hiru urtetan zehar ikasten aritu behar da. Baina kontzertuetan ondo jotzeko bost urte edo gehiagotan ikasten jardun behar da"* esan digu Letamendiak. Lehen, txistua, dantzarietara laguntzeko edota dieran jotzeko erabiltzen zela adierazi digu; egun ordea, txistua jotzen duten kontzertu asko egiten dira. Hala ere, beste musikatresna askok laguntzen diote txistuari kontzertu horietan. Txistuak zein zailtasun duen galdetu diogunean, danbolina ondo jotzen ikastea nahikoa zaila dela esan digu. *"baina gogoz hartzen bada ez da batere zaila txistua jotzen ikastea"*.

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETARAKO IZENEMATEA

Apirilaren 30a arte eman daiteke izena udaletxean

Babes ofizialeko etxebizitzetan interesatuta dauden herritarren izenak jasotzen ari da Udala. Hamabi etxebizitza eraikiko ditu, 75 m²-koak. 5 m²-ko ganbara edukiko du etxebizitza bakoitzak. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena apirilaren 30a baino lehen, eta goizeko 9.30-13.30 bitartean. Eskatera orria bete ondoren honako agiri hauek aurkeztu behar dira: familia osoaren N.A.N.ren fotokopia; familia liburuaren fotokopia konpultsatua (udaletxean bertan); elkarbizitza eta bizilekuaren ziurtagiria (udaletxean bertan); eta etxebizitza haren jabetza ezaren agiria (udaletxean bertan). Informazio gehiago udaletxean.

Ozenki txistu taldea, ikasleek osatzen duten banda

Iñaki Letamendiak Tolosako musika eskolan, Ibarran eta Belauntzan ematen ditu klaseak. Horrez gain, Tolosako udaletxeko txistu bandako zuzendaria da, eta igandero jotzen dute diana herrian, *"gero eta gusturago gainera"*. Bestalde, Ozenki txistu taldea osatu du klaseak ematen dituen herrietako ikasleekin, eta kontzertu batzuk eman dituzte hemen inguruan eta Nafarroan. Ikasleak klaseetara joateaz gain, kontzertuak emateko aukera eskaini nahi die taldearen bitartez.

Julian Lizardi etxea zabalik

Apirilaren lehenean ireki zituen bere ateak Julian Lizardi egoitza sozialak. Astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan, arratsaldeko 15.30etatik 19.30ak arte egongo da irekita. Asteartean eta ostegunetan berriz, 17.30etatik 19.30etara irekiko dute egoitza. Aipatu dugun ordutegi hori ordea, luzatu egin nahi dute denbora gutxi barru.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

TRANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kalebarria, 26 behea
59 08 14
ANDOAIN

winterthur

GOBERNU BATZORDEA AUZIPERATUTA

Langileei behin-behineko zein kontratu mota egin aztertzen ari dira

Gobernu batzordeak urrian egin zituen zuzeneko kontratazioen aurka errekurtsuok aurkeztu zituzten udal langileek eta HBk. Errekurtso horietan Gizarte Ongizate eta Enplegu batzordeko bi langileri eta Euskara batzordeko langile bati egin zitzaizkien kontratazioak legez kanpokoak zirela salatzzen zen, izan ere, deialdi publikoa egin gabe behin-betirako kontratatu zituzten.

"Erabakia hartzen ari zirela idazkariak esan zien kontratazioak legez kanpokoak zirela", azaldu zuen HBk prentsaurrean. Beraz, HBren esanetan, epaileak aurrera ez jarraitzeko eten dituzte kontratazioak Gobernu batzordeko zinegotziek. Epailearen erabakiekin ados agertu dira, eta bere nahiz langileen ekimenei esker Gobernu Batzordeak egin asmo zuen iruzurra gelditu dutela gaineratu du. Bestalde, Bidean taldearen jarraera ere salatu dute, HBk kontratazio horiek salatu zituen euren kontrako adierazpen gogorrak egin zituelako. Gainera, Jose Luis Arnaez Ongizate Batzordeko buru den zinegotziaren dimisioa eskatu dute, "epailearen erabakiaren aurka azalduz gero, dimittitu egingo

Epailearen erabakia jakin aurretik eta idazkariak egin zuen txostena aztertu ondoren, Udalak kontratazio horiek etetea erabaki zuen otsailean. Hala ere, epaileak errekurtsuok aztertu eta kontratazioak bertan behe- ra uzteko agindua eman du, eta gainera, HBk Gobernu batzordearen aurka jarri zuen kereila dela eta, deklaratzera deitu zituzten Bidean eta EAJ-PNVko zinegotzi batzuk.

zuela esan zuen". Horrekin batera, Gobernu batzordeak hartutako erabakia okerra dela eta, bertako zinegotziek autokritikarik ez dutela egin salatzen dute. Bukatzeko, kereila eta errekurtsuarekin aurrera jarraituko dutela adierazi dute, "Udalak borrelako auziak berriro ez gertatzeko borondatea agertu arte".

Aipatu beharreko da Ongizateko bi langileri behin-behineko kontratazioa egin zitzaizkenez, HBk beste errekurtsu bat egin zuela. HBren esanetan, ez zituzten Udalak adostuta zuen euskara maila eta beste zenbait baldintza betetzen. "Argi dago bi langile horiek entxufismoz hartu dituztela, eta Euskara batzordeko langileak berriaz, txantaila modutan, iruzur berdinean sartu dutela" esan du HBk.

"Guk ez genuen inor entxufismoz hartu nahi"

Joxi Mujika alkateak kontratazioak legezkoak zirelakoan egin zituztela esan digu. "Langile horiek lan ona egin zutela baloratu genuen, eta arrazoi horregatik bakarrik kontratatu genituen" zioen, langileak kontratatzeke beste inolako interesik ez zutela gaineratuz. Bestalde, Jose Luis Arnaezek ez duela dimittituko adierazi digu alkateak, "momentu beroetan esaten diren gauzak dira horiek". Gainera, kontratuak ezereztatu dituztenez, errekurtsua kentzeko eskatu die langileei. Horrezaz gain, HB interes politikoeekin ari dela jokatzzen salatu du, "legea nahi dutenean bakarrik hartzen dute kontuan". Azkenik, epailearen erabakia onartuko dutela azaldu digu: auzia bertan behera uztea edota Gobernu Batzordea inhabilitatzea.




Errekurtsoarekin aurrera jarraituko du H.B-k

TAXI ZIZURKIL

- Taxi zerbitzu orokorra
- Ezindu fisikoentzat ere moldatua

Pello Ezeiza



Tel. 69 08 23 - Tel. mugikorra - 908 - 57 59 00



Gema

Loradenda

LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale Nagusia, 30 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

IV. LOATZO LASTERKETA

Apirilaren 28an, goizeko hamar t'erdietan

Amasako gazteek eta Uxo-Toki elkarteak antolatzen dute Loatzo mendira igoera eta jaitsiera lasterketa. Hamar kilometro baino gehiago egin behar dituzte partaideek, eta lasterketa osoa nahikoa gogorra dela adierazi digute antolatzaileek. Baina aurten berrikuntza bat egin dute ibilbidean: Loatzotik Amasara jaisteko bide errazago bat aukeratu dute.

Lasterketan parte hartu nahi dutenek egun berean eman behar dute izena Uxo-Toki elkartearen. Gainera, ez dute batere ordaindu behar, eta elkarteko bazkidea den Joxe Ramon Ugarteren esanetan, gaur egun, lasterketa gutxi egiten dira dohain. Berrogeita hamar lagun inguruk parte hartu ohi dute lasterketa honetan, eta horietatik hiruzpalau emakumezkoak direla esan digu Joxe Ramonek. Kanpoko herrietatik ere jendea etortzen dela adierazi digu.

Nahi duen edonork har dezake parte, baina guztiek hamabost urtez gorakoak izan behar dute. Sari asko banatuko dira partaideen artean, baina txapela lasterketa irabazi duenak bakarrik lortuko du. Lehenengo gizonezkoak eta emakumezkoak 10.000 pezeta bana irabaziko dituzte; bigarren iristen direnek berriz, 8.000 pezeta poltsikoratuko dituzte; hirugarren postua lortzen dutenek 5.000 pezeta jasoko dute. Gainera, lehenengo hogeita bost lagunek 1.000 pezeta irabaziko dituzte. Lasterketa bukatzen dutenek oilasko, arkume eta beste hainbat jakien zozketan hartuko dute parte.

Loatzo mendia, apostuzaleen mendia

Joxe Ramon eta bere lagunei bururatu zitzaaien orain dela lau urte lasterketa antolatzea: *"Iparraldean eta Sakanan antzeko lasterketa asko egiten dituzte, guk borietako askotan hartzen dugu parte. Ondorioz, herrian ere antzeko zerbait egitea pentsatu genuen"*. Ohitura zaharrei jarraituz egiten dira lasterketa horiek. Izan ere, Sara herritik Larrun mendira egiten duten lasterketan garai bateko kontratabandisten ibilbidea egiten dute. Loatzo mendian ere apostu ugari egin ohi dira, eta ohitura ez galtzeko, datorren igandeko lasterketa edota apostua antolatu dute.



ONARTU DIREN AURREKONTUEK EGUNGO ZERBITZUAK MANTENDUKO DITUZTE HBk aurrekontua handitu nahi du; EAk txikitzea proposatu du

Aurrekontuak eztabaidatzeko eta onartzeko egin zen udal batzarrean, Gobernu batzordea osatzen duten Bidean eta EAJ-PNVren proposamena onartu dute: beraien aldeko zortzi botoekin, HBren aurkako lau botoekin eta EAren abstentzioarekin. Egungo zerbitzuak mantentzeko eta kiroldegia bukatzeko behar den aurrekontua onartu dute: zazpirehun milioi pezeta inguru.

EAk dirua kontrolatu behar dela esan du, aurrekontua hogeita milioi inguru jaisteko proposamena eginez. Egitasmo gutxiago eta gauza praktiko gehiago eskatu ditu. HBk berriz, etxebizitzak eta lanpostuak egiteko, aurrekontuak handitu egin behar direla dio: berrogeita bost milioi gehiago, alegia. Bertan, euskara eta presoak bisitatzeak sortzen dituen gastuak aurrekontuetan sartzea proposatzen dute.

ANDATZA EGUNA

Zizurkildarren eta usurbildarren arteko elkar ezagutza bultzatu du

Maiatzaren 5ean Andatza Eguna ospatuko da izen bera duen mendian. Andatza mendian muga egiten duten hiru herrietako bizilagunak bilduko dira: Zizurkilgo, Usurbilgo eta Aiako lagunak, alegia. Mendira igo ondoren, babarrun jana egin, eta jai giroan igaroko dute eguna. Urtero ospatzen den egunpasak, zizurkildarren eta usurbildarren arteko harremanak asko sendotu ditu.

Sortzaile Kultur Elkarteak Julian Arrastoarekin hitz egin dugu Andatza Egunari buruz. Sortzailek eta Usurbilgo Andatza Mendi Elkarteak antolatzen baitute egunpasa. "Eguerdia aldera basten da Andatza mendian jaia, eta beraz, goizaldera ateratzen gara herriak". Oinez joaten dira bertaraino. Irtsi eta berehala, mezarri ematen zaio hasiera, eta indarrak berreskuratzeko hamaiketako egiten dute. Bertsolariak eta trikitilariak euren saioak eskaintzen dituzte egun guztian zehar, eta herritarren arteko sokatirak arrakasta handia izaten du. Ondoren babarrun jana egiten dute mendian, baina eguraldi txarra egiten badu, Usurbilera jaisten dira bazkaltzera. Arratsaldean amaitzen da egunpasa.

Herrien arteko laguntasuna

"Usurbildarrek antolatzen dute guztia: bazkaria, bertsolariak, trikitilariak, eta beste zenbait ekintza gehiago" adierazi digu Julianek, eta Usurbilen egunpasa hori egiteko oihitura aspaldikoa dela gaineratu digu. Usurbildarren ideia izan zen zizurkildarrek ere egunpasa horretan parte hartzea, eta 1991. urtean parte hartu zuten lehenbiziko aldiz Zizurkilgo bizilagunak Andatza Egunean. Urte horretan, bi elkarten artean oroigarriak elkartrukatu zituzten, eta gauza bera egin zuten bi Udalek. Hurrengo urtean Aiako herriarekin ere berdin egin zuten.

"Aiako herritar gutxik hartzen dute parte ekimenean, baina Usurbildik jende asko joaten da. Zizurkildik ere, nabikoa lagun biltzen gara" esan digu Julianek, eta guztira hirurehun lagun inguru joaten direla gaineratu du. Egunpasa honen bidez, Usurbilen eta Zizurkilen arteko adiskidetasun handia sortu da. "jaietako herri kiroleetan bi herrietako partaideen arteko lehiak egiten dituzte Zizurkilen nabiz Usurbilen".

"Egun kultur elkarte baten beharra inoiz baino handiago da".

80ko hamarkada inguruan sortu zen Sortzaile Kultur Elkarteak. Gauza asko egin eta antolatu ditu urte guzti horietan zehar: jaietako ekitaldi batzuk, mendi irteerak, Zizurkil herriari buruzko liburua, eta beste hainbat ekintza kultural gehiago. Baina egun, duela hamasei urte hasi ziren hiru lagunak osatzen dute elkarteak, eta nahikoa nekatuta eta denboraz larri dabilta edozer gauza antolatzeko: "Kanpotik etortzen diren ekintza kulturalak laguntza emateaz gain, ezer gutxi egiten dugu herrian". Beraz, asanblada ireki bat egin nahi dute jendeak Sortzailearen beharra ikusten duen jakiteko, eta elkartearekin aurrera jarraitzeko denbora eta gogoak nork duen jakiteko.



Bi herrien topagune



ILLUMBE, S.L.

Alameda de la Victoria, 11



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 TOLOSA

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 ANDOAIN

JANTZIK
BOUTIQUE

**UDABERRI ETA UDARAKO ERROPA
PREZIO BEREZIAK**

Kale Nagusia, 45 ☎ 59 28 28 ANDOAIN





BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko apirilaen 26a.

GEHIGARRI BEREZIA



Apirilak 23 - Maiatzak 5

Urigain Kultur Etxean

**Ahoz aho, belaunez belaun
erakusketa ikusgai**

EUSKARAREN LABERINTOAN

¿QUE HASIDO, FALTAR?

ETA KARPIN JOKOZ KANPO GELDITU DA.

CALLA QUE NO OIGO



¿ECHAMOS LA ESPUELA?

BI KANA

!?

YA SACO YO

HI, ATERAZAK KANA BAT.



PURI, VOY A SACAR AL PERRRO GOAZEN PINTTO!



Hi, AITONA, ZER MODUZ HAGO?

!?



IKASIZAK EUSKERAZ BEHAR DEN BEZALA, HORI DA HORI ERRESPETU FALTA!



TENGO MOGOLLON DE ETXEKOLANAK, ¿YTU?

YO SOLO TENGO UNA IDAZLANA SOBRE LAS INAUTERIS.



AIZAK, KATXENJUNGARA JOATEKO?

BAINA PATXI, EZ HAGO ETA, ANDAINEN PUES, DILE SIKIERA EN CASTELLANO, OYE

AIZAN, NIK EZ ZEKINATINGELESIK

UMMMM



AIZAN, ¿QUE TAL TE COME EL NIÑO?

PUES, ME COME PRIMERAN, TXIKA

Ai, POLIT HORI, ZER DEZU?

A, ZE MIMOSOO!



AURKIBIDEA

**1: AURKIBIDEA ETA
EDITORIALA**

*Gabino Agudo, Andoaingo
Udaleko Euskara batzorde-
burua*

2-3: ERAKUSKETA

4-5: TRANSMISIOA ESKOLAN

*"Eskolak bakarrik ezin du erabilera
ziurtatu"*

Xabier Garagorri elkarrizketa

6-7: TRANSMISIOA KALEAN

Andoaingo hiru belaunaldi

8: TRANSMISIOA FAMILIAN

*Euskararekiko jarrera baiko-
rra eta borondate ona dira
gakoa*

9: UDALA

*Patxi Baztarrika: Udalaren
helburu eta asmoak*

10: GALDEZKA

*Larramendi Kultur Bazkuna
Euskal Herrian Euskaraz
AEK euskaltegia
Leizaur euskaltegia*

11-12: KOLABORAZIOAK

*Josune Ariztondo
Bernardo Atxaga
Joseba Arregi*

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
Egoitza orokorra: Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140
ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:**
Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal
eta Ainhoa Oartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika
Komikia: Iñaki G. Erro **Administratzaile-eragilea:**
Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E.
(Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia.
Lege-gordailua: SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614
Gehigarriaren tirada: 4.350 ale.

EDITORIALA



Gabino Agudo

*Andoaingo Udaleko
Euskara
batzordeburua*

AGUR T'ERDI:

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza izanik, ezkutatzen joan izan da urteetan, ez lurralde geografikoetatik bakarrik, baita zenbait bizi-tzako arlotatik ere. Izan ere, oraintxe arte ez du izan babes ofizialik eta, beraz, eutsi izan zaionetan, batez ere ahozko erabilera eta familia barruko transmisioari esker izan dela bistan da. Belaunaldiz belaunaldi eta ahozko transmisio horrek badu garrantzia gaur ere, nagusiki belaunaldi gazteek jasotzen dituzten baloreen heziketa baztertu ezinezko arazoa delako: nolako gizar-tea, halako jokalmode eta baloreak ezartzen dira gazteen-gan.

Transmisio hori, gaur egun, familiaren esparrua gainditu eta, neurri handi batean, gizartera ere hedatu da. Eskolak, komunikabideek, giza jokaerak, etengabe azaltzen dituzte gazteen aurrean zenbait eredu, onak eta txarrak. Nolabait esateko, haurra ez da etxean bakarrik hezitzen (oinarriko balore eta jokaerak familian ezartzen bada ere); telebista, irratia, komunikabide oro, kirol eta ikuskizunen munduko zenbait pertsonaia eta abar, imitatu beharreko eredu bihurtzen dira.

Euskararen berreskurapenerako ere (eta berreskurapen hori zentzurik zabalenean ikusirik), transmisio horrek garrantzi itzela du. Familia edota gizartea osatzen dugun helduengan, beraz, bada erronka nagusi bat zentzu horretan: euskara gazte eta haurrek erabil dezaten ereduak sortzea, euskara geure hizkuntzatzat baldin badaukagu, eta hizkuntza *hitzegiteko* hilde hutsa baino, geure herriaren nortasuna, kultura eta abar tansmititzeko tresna bezala hartuz, ezinbestekoa da balore bezala lantzea. Eta ez dago gaizki ere, helduok, belaunaldirik gazteenek beren ereduak nondik jasotzen dituzten bertatik ikustea, transmisio bide horiengan eragin dezagun. Helburu hori du erakusketa honek, eta bere garrantzia horixe izanik, ikustera ezezik, ikastera eta hausnartzera ere gerturatu beharko genuke guztiok.



*Gehigarri hau Andoaingo Udaleko euskararen
normalkuntzarako departamenduaren
dirulaguntzaz argitaratu da*

AHOZ AHO, BELAUNEZ BELAUN

Apirilaren 23tik maiatzaren 5era Kultur Etxean eta ikastetxeetan ikusgai

Euskararen normalizazioa arlo guztietan hedatzeko asmoz, urrats ugari eman dira azken urteotan. Gehienek, dena den, eskola eta gizartea izan dute helburu; eta ez da ahaztu behar familia dela hizkuntzaren jarraipenari eusteko biderik nagusiena eta berezkoena. Ahoz aho, belaunez belaun, Eusko

Jaurlaritzako Kultura eta Hezkuntza sailek antolatutako erakusketa, transmisioa familian bideratzeko sentsibilizazio kanpaina da, hain zuzen ere. Andoainen egongo dira kanpainaren ardatz diren bi erakusketak aurrenekoz Euskal Komunitate Elkartean: bata, Kultur Etxean; ikastetxeetan, bestea.



Kanpainaren bitartez familiaren inplikazioa lortu nahi da: batetik, euskararen erabilera eta belaunez belauneko jarraipena areagotzeko, eta bestetik, familiaren egitekoa eskolak eta gizarteak dutenarekin uztartzeko. Kanpainaren bitartez gurasoen eta gurasogaien euskararen aldeko jarrerak sendotu nahi dira, hizkuntzaren jarraipenean duten erantzukizunaz jabetarazi, eta erakutsi eskola, familia eta gizarteak helburu berera egin behar dutela: hizkuntza arlo eta maila guztietan jakin eta erabiltzera.

Bi erakusketa ikusgarri dira kanpainaren ardatzak: bata ikastetxeetan egongo da; Kultur Etxean bestea, apirilaren 23an hasi eta maiatzaren 5a arte. Erakusketa ikusi, ukitu, entzun eta manipulatzeko aukera ematen duten teknikez baliatzen da. Erakusketaren hariari jarraitzeko maskota-bikotea izango da: Itsaso eta Ibai, gure herriko hizkuntz erralitatea islatzen duten bi haur. Bata alfabetatu gabeko guraso euskaldunen umea da, eta bestea euskara ikasi duen familia batekoa. Horrela hizkuntzaren jarraipenerako bi erarik zuzenenak erakusten dituzte: familia eta eskola, alegia.



Erakusketaren edukiak hiru gune nagusien inguruan antolatu dira: familia, eskola eta gizartea. Horietan oinarrituta, bisitariak, modu entretenigarrian euskararen jarraipenaren azken urteotako errealitatea ikusi ahal izango dute, eta etorkizunerako aurrikuspenak egin, edota behintzat, gaiaren inguruan hausnartzeko aukera izango dute.

Sentsibilizatu eta pentsarazi nahi duen erakusketa



Erakusketak, lehenengo eta behin, aurkezpen panela izango du. Jarraian, panel banatan itsatsita, hiru komiki erraldoi ikusi ahal izango dira Itsaso eta Ibairen arteko elkarrizketaz osatuak. Informatika arloan, interaktiboak deiturikoak izango dira: bisitariak hatz sistemaren bitartez makinarekin hartu-emanetan jartzeko modua izango du. Makinak galderak egingo dizkio, eta bisitariak erantzun egokiak bilatu beharko ditu. Telebista ere izango da, eta bideo ezberdinak ikusteaz gain, gaur egun telebista bitarteko euskarazko eskaintzaren berri emango da bertan.

Komunikabideen garrantzia

Irrati erraldoi batek urteetan zehar irrati emititutako saio ezberdinak entzunaraziko dizkigu, irratia bitartez euskarak azken urteotan izan duen bilakaeraz jabetzeko. Kiosko batean egokituta, gaur egun euskaraz argitaratzen den prentsa idatzia nahiz bestelako argitalpenak ezagutu eta irakurtzeko aukera izango da. Ipuin kontalariaren bitartez, bisitariak lau ipuin ezberdin entzuteko aukera izango du. Azkenean, ordenagailu bitarteko galdera jokoa ere izango da: interaktibo funtzionamendu berrari jarraituz, erakusketari buruzko hainbat galdera egingo dira. Erantzun zuzenak emanez gero, bisitariak saria jasoko du. Erakusketa osatzeko zortzi minutuko diaporama saioa izango da, eta bertan bi-

sitariak erakusketaren eta kanpaina beraren mezua jaso ahal izango du. Azken hau ez da ikastetxeetako erakusketan egongo.

Haurrak erakarri eta bide batez gurasoak hurbilarazteko erakusketa

Erakusketa haurrak erakartzeko eginda baldin badago ere, gazte-txoenek gurasoak bertara eraman asmoz eginda dago halaber, izan ere baliagarria izango zaien informazioa eskuratu ahal izango dute gurasoek bertan. Haurrek ere erakusketan landu dituzten ideiei jarraituz, beraiek osatzeko komikiak izango dituzte. Eta proposamen gisa, erakusketaren egileak lau antzerki saio prestatu dituzte herriko edozein ikastetxek edota bestelako taldek antzezlanak egin ditzaten.

Erakusketa ibiltari eta partehartailea

Antolatzaileek adierazi diguteenez erakusketa partehartailea egin nahi izan dute. Baina ez hori bakarrik, izan ere, erakusketaren osagarri, herriko erakunde eta taldeek bestelako ekintzak antolatu ditzaten nahi dute antolatzaileek, herri-

tarrak beraiek izan daitezen protagonista nagusi; *"azken finean erakusketa ekintzak antolatzekeo aitzakia baino ez da"*. Hori dela eta, *Atzoko Andoain eta andoaindarrak* izenburupean hitzaldi saioak antolatu dira ikastetxeetan, herriko edaletuek gazte-txoenei garai bateko Andoain eta bertako herritarrak nolakoak ziren azaltzeko. Santa Kruz jaietako haurren egunean bertan ere ikastetxeek antolatutako jai berezia izango da, Kike Amunarrizek gidatu eta animatuta. Erakusketa ibiltaria Andoaindik, Aramaio, Mungia eta Bergarara joango da, eta hiru urtez ibiliko da harat-honat EAEko herri handitsuenetan geldituz.

Mendeetan zehar, euskara ahoz aho heldu zaigu, belaunez belaun. Familia eta auzoa dira, hortaz, euskararen jarraipenaren oinarri. Baina, azken hamarkadetan, euskarak lortu dituen hiztun berriak eskolari zor zaizkio, batez ere. Bestalde euskararen erabilera normaltzeko urrats handiak eman dira prentsa idatzian, literaturan, irratiari, teledibistan eta teknologia berrietan. Alabaina, gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egitea da haur eta gazteek euskaraz hitz egiteko biderik egoki, seguru eta merkeena, gurasoen egitekoa ezin baita ordezkatu -ezta hizkuntza kontuetan ere-. Eta, horixe da, hain zuzen *Ahoz aho, belaunez belaun* kanpainak erakutsi nahi duena.



“ESKOLAK BAKARRIK EZIN DU ERABILERA ZIURTATU”

Xabier Garagorri elkarrizketa

Euskararen transmisioan eskolaren eginkizuna zein den jakin asmoz jo dugu Ikastolen Fedarazioko aholkulari pedagogiko eta EHUko pedagogia irakasle den Xabier Garagorri andoaindarrarengana. Transmisioa, irakaskuntza, hezkuntza eta eleaniztasuna izan ditugu, besteak beste, hizpide. Xabier Garagorri etorkizunari begira itxaropentsu agertu da, hala ere, behin eta berriz azpimarratu digu ezagutza eta erabileraren artean dagoen aldea. Bere esanetan eskolak ezin du haurren euskararen erabilera ziurtatu, gainera, ezin du ordezkatu gizarteak beregain hartu beharko litzukeen hainbat eta hainbat eginkizun.



XABIER GARAGORRI

Ai: Eskolak zein eginkizun dauka euskararen transmisioan?

X.G: Edozein herri saiatzen da hezkuntzaren bitartez bere ondare kulturala belaunaldiz belaunaldi ziurtatzen. Familia izan da orain arte behintzat, eta oraingoa ere bada, horretarako biderik egokiena. Hala ere, gizarte normalizatu batean hezkuntzaren transmisioa erakundeen bitartez ziurtatzen da, eskolen bitartez alegia, besteak beste, hiritarrek hala eskatzen dutelako. Eta kontuan hartzekoa da Euskal Herriak 60ko hamarkada arte, ikastolak sortu arte, ez duela eskola priorik izan.

Ai: Gaur egun eskolak euskararen ezagutza ziurtatzen du. Baina erabilera?

X.G: Bi arlo ezberdin dira ezagutza eta erabilera. Ikerketa askok egiaztatu dute gaur egungo eskolatan euskararen ezagutza ziurtatuta dagoela, eta hain zuzen ere, jatorri erdalduna duten haurrek hiru urte-tik sei urte bitartera ia euskaldunen

mailara iristen dira. Hamasei urte betetzen dutenerako, bestalde, ezagutza erabat lortuta dago. Era berean irakaskuntzaren bitartez motibazioa bultzatzen da, eta erabilera neurri berean. Baina erabilera berma dadin gizarteko beste hainbat esparruren partehartzea behar da: komunikabideak, administrazioa, ekonomia eta abar. Eta beste esparru horiek huts egiten badute, eskolak ezin du erabilera ziurtatu. Bestalde, ez dut uste eskolak eginkizun hori hartu beharko lukeenik. Euskal Herrian betidanik izan dugu gizarte zibil bizia, eta berari dagozkion lanak ezin ditu beste inork ordezkatu. Hala ere, neri iruditzen zait gaur egun euskaraz ikasi duen neska-mutilak arduratuko direla aurrerantzean euskararen jarraipenaz.

Ai: Eskola ereduaren artean, ordea, badago alderik?

X.G: Bai, baina ereduak ez dira sakralizatu behar; hizkuntz ereduak helburu batzuk lortzeko tresnak dira. Gaur egun frogatuta dago D

eredua dela euskararen ezagutza hobekien bermatzen duena. Hala ere, gurasoak ezin dira behartu legez beren seme-alabak D ereduari matrikulatzera. Guk sinestarazi behar diegu aberasgarri eta mesedegarri dela. Dena den, prozesu horiek beti egin behar dira errespetuz, eta batez ere, kontrako jarrerak piztu gabe, eta normalean nahikoa geldoak izan ohi dira. Gaur egun oraingoa guraso guztiak ez daude sinestuta D ereduari egokiena denik.

“Gurasoei beren seme-alabak D ereduari matrikulatzea aberasgarri eta mesedegarri dela sinestarazi behar diegu



Etxean gurasoek ere eginkizun garrantzitsua dute eskolako ahalegina hutsean gera ez dadin.

Guraso euskaldunak beren ama-hizkuntzari eusten ahalegindu behar dira, eta erdaldunek gutxienez euskararekiko jarrera baikorra agertu behar dute. Erabateko motibazioa dutenak euskaltegietara joaten dira euskara ikastera. Dena den, eta gurasoak euskara guztiz menderatzera iristen ez badira ere, seme-alabak oso aintzakotzat hartzen dute gurasoen ahalegina, harro sentitzen dira, eta euskararekiko jarrera baikorra aragotu egiten da. Eta besterik ez bada, gurasoak saiatu behar dira gutxienez, haurrei gaztelerazko hizkuntz eredu egokia ematen; hizkuntza bat ongi finkatuz gero, errazagoa da besteak ikastea.



EUSKAL ESKOLAK ASKO DAUKA ERAKUSTEKO

“Egiaztatuta dago bi hizkuntza ezagutuz gero, hirugarrena errazago ikasten dela”

Escola umeak euskaraz gain, beste hizkuntza batzuk ikasi behar izaten dituzte.

Bai, argi dago etorkizunean euskaldunok euskara eta gaztelera gain edota Iparraldean frantsesaz gain, gutxienez ingelesa ezagutu beharko dugula. Ikastolan 1991-92. ikasturtean jarri zen lau hizkuntzen irakaskuntza proiektua martxan: erreferentzia hizkuntza euskara dute, lau urtetik aurrera ingelesa ikasten hasten dira, zortzi urtetik aurrera gaztelera, hamabitik aurrera frantsesa. Oraindik ez dugu prozesu osoa ikusi, baina oso pozik gaude orain arteko emaitzekin. Hizkuntza ezberdinen artean badaude nolabaiteko zubiak, eta egiaztatuta dago bi hizkuntza ezagutuz gero, hirugarrena errazago ikasten dela. Era berean beste hizkuntza eta kulturekiko jarrera irekiagoak lortzen dira. Proiektu hau, Europa mailako Socrates Proiektua, Erromako unibertsitatearekin batera ari gara aurrera eramaten, eta gaur egun ikas-

tolena da 8-12 urte bitarteko eskola haurrei dagokien arloa betetzea. Beste herrialde batzuei gure ekarpena egiteko moduan egongo gara, eta hori ere garrantzitsua da euskararen prestigiorako. Hurrengo urtean Espainia osoko 900 ikastetxetan eramango da aurrera proiektu berbera, eta EAeko hogeit hamar ikastetxe publikotan. Euskal Herriak irakaskuntza arloan, elebitasuna dela eta, asko dauka erakusteko. Arlo askotan aitzindari izan gara. Izan ditugun buruhausteei esker, gure irakaskuntzaren kalitatea asko hobetzea lortu dugu.

“Edozein hizkuntzen arteko elebitasun orekatua amets utopikoa da”

Posible al da euskararen eta gaztelera arteko elebitasun orekatua?

Edozein hizkuntzen arteko elebitasun orekatua amets utopikoa da; hizkuntza nagusiak beti jango du ahula. Horregatik lortu behar dugu euskara normalizatzea, hau da, euskara gizarteko edozein es-

parrutan erabiltzeko erabilgarria izatea. Euskaldunok hausnarketa sakona egin behar dugu, eta gure herriaren hizkuntza zein amesten dugun erabaki. Euskal herritar guztien artean elementu amankomun batzuk bilatu behar ditugu, bakea nahi badugu. Euskaldunok jarrera irekia agertu behar dugu beste kulturekiko, eta erdaldunei sinestarazi behar diegu, beren ondorengoek batez ere, aberasgarri eta onuragarri izango dutela euskara eta euskal kultura ezagutzea eta barneratzea.


Zer da euskal kultura? Non dago?

Edozein herrik talde gisa, bizitzako era ezberdinetako arazoan aurrean berezko erantzunak izan ohi ditu. Eta ondare kultural hori, besteak beste, hizkuntzaren bitartez transmititzen da. Euskara ez da edukinik gabeko esperantoa bezalako hizkuntza. Une honetan eskolan Madriletik finkatuta iristen zaizkigu gutxieneko hezkuntza edukiak, eta autonomia bakoitzak aldaketa sakonik egiteko medio handirik ez dauka. Euskaldunok erabaki beharko genuke eskolaren bitartez belaunaldi belaunaldi transmititu nahi dugun ondore kulturalari buruz.



ANDOAINGO HIRU BELAUNALDI

“Andoainen, nahi izanez gero, euskaraz bizi daiteke”



JOXE EIZMENDI



MIREN ERKIZIA



IÑAKI OTAMENDI

Joxe Eizmendik 84 urte ditu, eta herritar gehientsuenak Andoainen euskaraz egiten zuten garaikoa da. Miren Erkizia 44 urte ditu, eta bere belaunaldikoek euskaraz hitz egiteari utzi ziotela esan digu. Iñaki Otamendik 25 urte ditu, eta euskara nahiko egoera normalizatuan jaso izan arren, euskaraz bizitzen jarraitzeko, euskararen aldeko kontzientzia gazte hartu duten andoaindarraren belaunaldikoa da. Beraiek azaldu digute belaunez belaur urteetan zehar Andoainen euskal giroa eta kultura nola aldatu eta bilakatu den.

Joxe ume zela, eskolan derrigorez gazteleraz egin arren, kalean ume eta ia nagusi guztiek euskaraz egiten zuten: “Goardia zibilen seme-alabek ere euskaraz hitz egiten ikasten zuten orduan”. Herrian erdal giro bakarra Kaletxikiko gune batzuetan, gelto-ki inguruan somatzen omen zen, Norte-ko trenbideak eragindako etorkinen ondorioz. Garai hartako mutilek soldadutzan batez ere, hasten ziren gaztelera ikasten. Gerorago 1936ko gerrak eta ondorengo diktadurak euskararen bilakaera naturala eten zuen, eta ezarritako debekuaren ondorioz, hizkuntzak erabateko atzerapena izan zuen.

Miren Erkizia gazteagoa da, ez ditu debeku irmoaren urteak horren hurbiletik ezagutu, hala ere ondorioak, konturaturik edo konturatu gabe, bizi izan ditu: “Gure belaunaldiak euskaraz hitz egiteari utzi zion. Gazteleraz hitz eginda, itxura hobea ematen genuela iruditzen zitzaigun”. Kontatu digunez, bere

ondorengo hurbilekoak berriz, euskararekiko oso bestelako jarrera izan dute: “Transizio garaia gazte bizi izan zutenengan euskararen aldeko kontzientzia piztu zen, eta euskaren alde lan egin dute”.

Aisialdiaren eragina

Iñakik Ikastolan egin ditu ikasketak, eta euskara egoera normalizatuan jaso zutela iruditzen zaio. Gazteen artean euskal eta erdal ikastetxeen artean zegoen giroa bereiztuta, baina aisialdia guztiz gaztelerazkoa zen. “Hala ere, gure euskalduntasuna ez genuen euskararekin lotzen, eta etxean eta ikasgelan euskaraz egin arren, kalean lagunekin gazteleraz egiten genuen”. Bere ustez telebista, gaztelera hutsez, eta kaleko ekintza euskaldun urriak izan dira, besteak beste, bere belaunaldiak bizi izan duen egoeraren erantzule. Hala ere, euskaraz ikasketak egin ondoren, euskararen aldeko jarrera, lehenengo edo gerorago, piztu da bere adineko jende askorengan, eta gaur

egun asko dira euskararen aldeko jarrera agertzen duten gazteek.

“Gure euskalduntasuna ez genuen euskararekin lotzen”

Joxek, gaur egun ere, ia ezagun guztiakin euskaraz egiten du, eta euskaraz hitz egiten ari direla, erdaldunik hurbiltzen bazaio, horrela hartzen du: “*Ya nos perdonarás, pero nosotros vamos a hablar en vasco*”. Mirenek euskaraz nahiz gazteleraz egiten du kalean, ezagun gehienak euskaldunak izan arren: “*Garai bateko ezagunekin, euskaldunak izan arren, gazteleraz egiteko ohitura hartu nuen, eta ezin dugu aldatu*”. Mirenek euskaraz hitz egiten ari direla, erdaldunik hurbiltzen bazaio, normalean gazteleraz hitz egiten hasten da. Iñakik ia bizimodu osoa euskaraz egiteko aukera

duela esan digu: “*Batzar eta talde batzuetan, bi hizkuntzak nahasten ditugu askotan; hala ere, beti euskaraz hitz egin izan dudan lagunekin, ezin dut aurrean erdaldunik egon arren, gazteleraz hitz egin*”.

Jai euskaldunak eta erdaldunak

Iñakik bizimodua ia euskara hutsen egin arren, ezin du ukatu, gazteen artean batez ere, herrian bi giro daudela: euskalduna eta erdalduna. Kalean ere bi giro antzematen omen dira askotan: “*Jaietan nabarmen ikusten da hori: Santakruzak jai euskaldunak dira, eta Sanjuanak berriz, erdaldunak*”. Sanjuanetan, inauterietan eta beste hainbeste jaietan euskaldunak arrotz sentitzen direla esan digu.

“Ez dut inoiz euskara desagertuko zenik pentsatu”

Hirurak nahikoa itzaropentsu agertu dira etorkizunari begira. Joxek bestalde, garai gogorak bizi izan arren, inoiz ez du etsi: “*Sekula ez dut euskara desagertuko zenik pentsatu. Gainera, euskararik gabe, nire ustez, ez dago Euskal Herririk*”. Joxek gazte jendea kalean euskaraz hitz egiten entzunez gero, zorionak ere ematen dizkie. Mirenek ere euskararekiko gaur egungo gazteek bere garaikoek baino konzientzia handiagoa dutela uste du. Eta Iñakik gaur egun Andoainen, nahi izanez gero, euskaraz bizi daitkeela esan digu, hala ere euskaldun askok omen dute oraindik gazteleraz hitz egiteko joera. Guztiak argi eta garbi ikusten dute, euskararen aldeko borrokan euskaldunak direla protagonista nagusi, eta kaleko giroa zuzpertz behar dela, batez ere. Halaber, eta gure gizartean gaztelerak leku ukaezina duela jakin arren, erakundeak euskarari lehenetasuna eman behar diotela uste dute. Euskararen alde eginikoak beti gutxi izango direlakoan daude, “*euskararen aldeko lana etengabea baita*”.





EUSKARAREKIKO JARRERA BAIKORRA ETA BORONDATE ONA DIRA GAKOA

Galardi auzoan egon gara, Agustin, Mari Sol, Alaitz eta Aiderren etxean

Agustin Gorostegi Andoaingoa da; Mari Sol Leria emaztea Sorian jaio zen, bi urte zituela etorri zen gurasoekin Astearura, eta zortzi urterekin Andoainera. Semea eta alaba dauzkate: Alaitz eta Aider, hamairu eta zortzi urte dauzkate, eta biek Larramendi ikastolan ikasten dute. Agustinek seme-alabei beti egiten die euskaraz, Mari Solek gehienetan gazteleraz, anai-arrebek euren artean normalean euskaraz hitz egiten dute, eskolako lagunekin euskaraz ere egiten dute, eta auzoko lagunekin berriz, gazteleraz. Lauak elkarrekin daudenean batzuetan ahalegin berezia egiten dute, Mari Solek batez ere, eta ahal dutena euskaraz hitz egiten dute. Horrelaxe bizi dira familian, Euskal Herriko beste hamaika familia bezala.

Mari Sol Asteasun bizi zenean, gurasoek ia ez zeukatzen euskaldunekin harremanik, eta eskolan gauza bera gertatzen zitzaion. Ikasketak derrigorez ziren gazteleraz. *"Bi komunitateak oso bereiztuta bizi ginen: euskaldunak eta erdaldunak. Kanpokoak ez ziren inoiz integratzen saiatu, eta bertakoak nahiko jarrera itxia agertzen zuten. Gaur egun ere nahikoa bereiztuta daudela iruditzen zait",* azaldu digu. Andoain berriz, garai bateko eskola nazionalera joan zen, eta bertan ez zuen inoiz euskaraz egiteko beharrik izan.

**"Haurra
izandakoan erabaki
nuen euskara
ikastea"**

Alaba izan zuenean pentsatu zuen euskaraz ikasi behar zuela. Urtebete saioa egin zuen, utzi zuen, beste bi urte aritu zen aurreraxeago, eta irailean ekingo dio berrir, ziur aski; euskaltegian talde egokia sortu zain dago. Gaur egun, familian izan ezik, ez du beste inorekin euskaraz hitz egiten.

Agustinek, bertakoa izan arren, etxetik kanpo ere ez du euskaraz asotxo egiten. Gurasoei beti egiten die euskaraz; anaiarekin berriz, aspalditxo hartu zuen gazteleraz mintzatze-ko ohitura, eta gaur egun ia ez dute euskaraz hitz egiten.

Aiton-amonak

Alaitz eta Aiderrek aiton-amon euskaldunak eta erdaldunak dauzkate: batzuekin euskaraz aritzen dira; gazteleraz besteekin. Mari Solen gurasoak Euskal Herrian eman dituzten urte luzeetan inoiz ez dute euskara ikasteko kezkarik agertu, ezta bertako kultura barneratzeko ere. Hala ere, eta oraindik ere egunonak euskaraz

zuzen ematen ez jakin arren, gaur egun oso harro sentitzen dira beren alabaren lorpenaz, zeresanik ez ilobenaz.

Ohiturak

Alaitzek eta Aiderrek, beraz, ez dute erabateko ingurune euskalduna, gehientsuenok bezala, hala ere, familian egiten duten ahaleginak eta gurasoek agertzen duten jarrerak osatzen dituzte bestelako gabeziak. Aitak seme-alabei euskaraz egiteaz gain, amak ahalegin handia egiten du tarteka euskaraz hitz egiteko, eta bere seme-alabak harro daude horregatik. Aitak anai-arreben artean gazteleraz ari direla ikusten badu, euskaraz egiteko azpimarratzen die: *"Bestela anaiari eta bioi bezala gertatuko zai-zue: gazteleraz hitz egiten hasi ginen, eta orain ezin dugu ohitura kendu".* Mari Solek badaki beren seme-alabekiko harremana beti gazteleraz izango dela, baina gauza guztien gainetik erakutsitako kemena, jarrera eta ahalegina geratuko direla uste du.

Senar-emazteek gazteleraz ezagutu zuten elkar, eta ziur aski, horrela jarraituko dute eguneroko bizitzan. Hala ere, Mari Solek badauka harro egoteko motiborik ere: *"Orain Astearura itzuliko banintz, ez nuke bizi izan nuen egoera biziko, eta euskaldunen eta erdaldunen arteko zubi lana egiten saiatuko nintzateke".*



ALAITZ FALTA ZEN ARGAZKIA ATERATZEKO



PATXI BAZTARRIKA

UDALAREN HELBURU ETA ASMOAK

Patxi Baztarrika: "Euskararen alorrean erabilera bultzatzea da gure lehentasuna"

Udaleko euskara zerbitzuak oso gogo onez hartu zuen hasieratik Eusko Jaurlaritzaren ekimenez antolatutako euskararen transmisiorako sentsibilizazio kanpaina. Eta kanpainaren ardatz den erakusketaren inguruan, epe motzean gauzatzen hasiko diren beste hainbat ekimen eman nahi ditu Udalak ezagutzera. Horri guztiari buruz hitz egin dugu Euskara Zerbitzuko arduraduna den Patxi Baztarrikarekin.

Ai: Erakusketarekiko interes handia agertu duzue.

P.B: Erakusketa soil bat baino gehiago, euskararen transmisioarekiko sentsibilitatea piztu nahi duen kanpaina da. Eta hain zuzen ere, euskararen normalkuntzarako hizkuntz politikaren atal garrantzitsuenetakoa da transmisioa; eta batez ere, etxean, familian egiten den transmisioa. Egiaztatuta dago hizkuntzaren transmisiorako lekurik egokiena eta naturalena dela. Erakusketaren bitartez familiengana iritsi nahi dugu, hain justu. Izan ere, kanpainak badu osagarri garrantzitsu eta ezinbestekoa: inplikazioa. Gurasoak beren erantzukizunaz ohar deitezen nahi dugu. Interesgarria gerta dakiekeen informazioa ere emango diegu.

"Herritarren partehartzea ezinbestekoa da"

Ai: Udalak ba al du transmisioari dagokionez, familiari zuzendutako egitasmo zehatzik?

P.B: Lehenengo eta behin, Udalaren helbururik nagusia euskararen alorrean erabilera dela argitu nahiko nuke. Eta erabilerari dagokio-

nez, hurrei eta gaztetxoei emango zaie lehentasuna. Izan ere, orain arte pentsatu izan dugu hurrek eskolan euskara ikasita, euskararen jarraipena ziurtatuta zegoela. Baina gaur egun argi ikusten da eskolak ezagutzan ezinbesteko garrantzia baldin badu ere, erabilerari dagokionez, etxeak eta kaleak eragin handiagoa daukatela. Horregatik bi arlo horiek jorratuko ditugu, batez ere.

Ai: Egitasmo zehatzak zeintzuk dira?

P.B: "Haurrak eta gaztetxoak euskaraz bizi" deituriko egitasmo finkatu dugu, eta bertan ekintza ugari daude. Dena den, ekintza horiek guztiak inplikatuena onespina eta partehartzea behar dutela argitu nahiko nuke, lehenengo eta behin. Horregatik eskolarteko kontseiluan proposatu ditugu, eta elkarren artean antolatuzeko asmoa daukagu. Aurten, urtero bezala, "Goazen jolastera!" izeneko udaleku irekiak izango dira. Baina orain arte uztailan bakarrik antolatzen baziren, aurten uztailean abuztuan izango dira. Bestalde eta aurrenekoz, Buruntza aldeko beste lau Udalekin batera kirol udalekuak egingo ditugu Goizuetan. Helburua argia da: udako kirolak praktikatu eta euskararen erabilera bultzatu. Hurrengo ikasturteetik aurrera, ekintza berriak izango dira, gainera, ikaste-

txeetan: gaztetxoei ezagun dituzten kirol, kultur, musika edota beste arlo batzuetako pertsonaia ezagunekin elkarrizketa saioak izango dira. Bestalde, garai batean egiten zen herriko eskolen arteko aldizkaria bultzatu nahi dugu berriro. Amaia Usabiagak eginiko herriko azterketa toponimikoa aprobetxatuz ehunen bat gazteren laguntzarekin herriko toponimorik nagusienak seinalatu nahi ditugu. Familiari dagokionez, gurasoei bereziki zuzendutako ikastaroak bultzatzeko asmoa daukagu. Merkataritza esparruan ere kanpaina berezia egingo da. Udalarekin harremana euskaraz izan nahi duten herritarren errolda ere egiten ari gara. Hor dago, halaber, Rikardo Arregi Kazetaritza Saria.

Ai: Haur eta gaztetxoei dagokionez beraz, euskara ikastetxeetatik kanpo atera nahi duzue?

P.B: Hala da. Orain arte euskara, ikastetxea eta eginbeharra askotan berdindu izan ditugu. Orain euskara haurrentzat erakargarri bihurtu nahi dugu, euskaraz gozatu eta euskaraz bizitzeko.

Ai: Zuk ikusi duzu dagoeneko erakusketa. Zer iruditu zaizu?

P.B: Oso egokia eta erakargarria. Nik uste dut hurrek eta edadekoek tarte atsegin bat igarotzeko modua izango dutela bertan.



Euskararen normalkuntza bidean transmisioak duen garrantzia begibistakoa da. Gizaldiz-gizaldi, mendez-mende, familia giroan eman da nagusiki euskal kultura eta izaeraren igorketa. Gaur egun ordea, telekomunikabideen munduak aintzinako ohiturak aldarazi dizkigu. Eguneroko eskura dezakegun informazio kopurua izugarria da.



Juani Lizaso
EHEko kidea

Horregatik azpimarratu nahiko nuke komunikabideek duten eragina eta ERANTZUKIZUNA: egunkari bakarra dugu euskara hutsez diharduna; ETBko kate espainol hiztunak, euskaldunak baino programazio erakargarriagoa du; irratsaio euskaldun bat aurkitzerako, esku bete erdaldun aurki ditzakegu. Bestalde, komertzio eta antzerakoek, buzoia bete arte, bidaltzen dizkiguten propaganda orrietan euskarak ez du ia tokirik. Ezin ahaz dezakegu komunikabideak betetzen dituzten politikarien ohizko hizkuntza espainola izaten dela.

Argi dago, euskararen transmisioan, datozen belaunaldiak egoera normalizatua izan dezaten, Euskal Herri euskaldun bat aurki dezaten, gizarteko eragile guztiak hartu behar dutela parte. Plangintza orokor bat behar da, non familia giroko transmisioa, euskal eskolen irakaspena, komunikabideen lana, hizkuntzaren eragina, politikoen jarrera..., plangintza batean uztartuko dituen helburu amankomun bat lortzeko: Euskal Herri Euskalduna eta Normalizatua, hain zuzen ere.

Ez dut uste inori ezer berriki azalduko diogunik esatearekin euskararen transmisioa gaur ez dela askok ezagutu nahi genukeena.

Duela 150 urte etxeko giroan, kalean edo eskolan belaunaldiz belaunaldi gorde eta ondorengoek bereganatzen zuten hizkuntza ez da gaurko azken belaunaldiak bereganatu dutena: eskola adibidez, orduan ezinbestez gazteleraz, gaur, berriz, gehienak euskaraz, programa eta ikuspegi askoz aberatsagoarekin gainera. Etxeko euskara, berriz, beste mundura joan bitartekoa zen; gaurkoa jaunartzea egin bitartekoa baino ez.

Larramendi Bazkunaren asmoek euskararen transmisioari dagokionez, abiapuntu jakina dute: kultura eta gizarte mailako ekintza eta ihardueretan eragin nahi du nagusiki. Gure ustez euskararen erabilera normaldu eta bere transmisioa ziurtatzeko egun dugun erreferentziarik aberatsena, landuena, prestigioitsuena kultur ihardunean dago. Abiapuntua hori bada ere, eskola -jakina!- nahitaezko bitarteko izango da gure ihardueran, eta azken helburu oinarrizkoenetakoa familia giroko transmisioa garai bateko "belar luzeetara" ekartzea.



Jon Unanue
Larramendi kultur bazkuneko lehendakari

Euskararen transmisioak hizkuntza baten berreskurapean duen garrantziaz gizar-tea jabetzea eskatzen du. Gaur egun transmisioaz zer ulertzen dugun kontuan izanik, transmisioak haurraren inguru guztia jasoko lukeen palangintza bat eskatzen du. Inguruaz hitz egiten dugunean hiru alor berebiziko genituzke: etxea, eskola eta aisialdia. Eskolari dagokionez, dudarik gabe, haurra euskal ereduari aritzea, hobe D ereduari. Etxeari dagokionez, haurraren harremana duten pertsona guztiak euskalduntze bidean jartzea; ez gurasoak bakarrik, baita haurtzaindegiak, zaintzaileak... Eta aisialdiari dagokionez, musika eskolak, pintura eskolak, aisialdi taldeak..., aipatuko genituzke, haurrekin lan egiten duten pertsona eta talde guztiak. Azken finean, haurrak eskolan jasotako hizkuntza bere eguneroko ihardunean etengabe erabiltzea lortu beharko litzateke, euskara berdin eskola identifikazioa ekidinez.

Aipatu ditugun alor horietatik batzuk gutxi edo gehiago garatuta ditugu gaur egun Andoainen, irakaskuntza arautua eta haurtzaindegia kasu. Beste alor batzuetan berriz, bada zer eginik. Bada garaia euskaltegi eta Udalaren artean gai honi eutsi, talde horiek guztiak transmisioaren garrantziaz jabetzeko eta talde horiei euskalduntzeko bitartekoak eskaintzeko, haurraren ingurunea euskalduntzeko pausuak emanez. Azkenik, gurasoen euskalduntzeari dagokionez, interesgarria izango litzateke, gurasoak euskaldundu ezezik, familia bera, kasuan kasuko egoeraz abiatuta, euskalduntzeko plangintzak ere egitea.



Joxemi Aranburu
AEK-ko irakaslea

Urteak aurrera doazen neurrian euskararen transmisioan aurrera pauso handiak eman dira: erakunde euskalduntzea, hezkuntza ereduak, komunikabideak gure esku ditugu, inoiz baino liburu gehiago argitaratzen da euskaraz, eta euskaltegiak direla eta, hiztun kopurua handitzen doa.

Hori guztia ezinbestekoa da euskarak aurrera egingo badu, baina erabilerari dagokionez, hor dugu hutsune handia. Hori gure esku dago, eta gure ardura da. Gutako bakoitzak hasi behar du lan horretan, gure hizkuntzari bere aletxoak jarritz, ohiko guneetatik atera eta ahalik eta gehien erabiliz.

Haurrek eskolatik kanpo erabiliz; euskaldun berriek euskaltegietatik hormetatik at erabiliz; euskaldun orok euskara sukaldetik atera eta azokan, dendan, kirolean, hau da toki guztietan erabiliz.



Maria Jesus Eloegi
Leizaur euskaltegiko irakaslea

Mendeetan zehar, euskara ahoz aho heldu zaigu, belaunez belaun. Familia eta auzoa izan dira, hortaz, euskararen jarraipenaren oinarriak. Baina, azken hamarkadetan, euskarak lortu dituen hiztun berriak eskolari zor zaizkio, batez ere. Beraz, familia eta eskola, biak, ezinbestekoak ditugu gaur euskararen bizirau-pena eta normalizazioa bermatzeko.

Bestalde, euskararen erabilera normaltzeko urrats handiak eman dira. Hortxe ditugu, esate baterako, euskarazko prentsa idatzian, literaturan, irratian, telebistan eta teknologia berrietan eginiko aurrerapenak. Alabaina, gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egitea da haur eta gazteek euskaraz hitz egiteko biderik egoki, seguru eta merkeena, gurasoen egitekoa ezin baita ordezkatu -ezta hizkuntza kontuetan ere-. Eta, horixe da, hain zuzen *Ahoz aho, belaunez belaun*, kanpainak erakutsi nahi duena.

Kanpainan, erakusketa ibiltari honetaz gain, beste hainbat ekintza osagarri izango dira: eskoletan adinekoak emango dituzten hitzaldiak eta gaztetxoek festa, besteak beste. Gainera zuretzat propio prestatutako hainbat irakurgai ere eskainiko dizkizugu, zeure etxera eraman ditzazun.

Erakusketa honetan, zeu zara protagonista nagusia eta zuzen-zuzenean parte hartzea nahi dugu. Horretarako nolako materiala eta ekintzak prestatu di-



**JOSUNE
ARIZTONDO**

*Eusko Jaurlaritzako
Hizkuntza
Politikarako
sailburuordea*

tugun aldizkari honetako beste atal batean irakur dezakezu.

Ekintza horiek guztiak egiteko, jakina, ezinbestekoa da udaletako euskara zinegotzi eta teknikarien inplikazioa, eskoletako irakasle eta gurasoena, baita herrian dauden euskararen aldeko elkarteetako kideena ere. Horiek gabe, ezinezkoa litzateke kanpaina hau behar bezala burutzea.

Bestalde, kanpaina Andoainen hastea ez da inolako kasualitatea; euskararen alde eginiko lanaren aitormena izan nahi du. Gainera, hasiera hasieratik, kanpaina honekiko adostasuna eta erabateko laguntza eskaini digu herri honek. Andoainen atzetik etorriko dira Aramaio, Mungia, Arrasate, Bergara eta beste hainbat eta hainbat herri. Datoren hiru urteotan, Euskal Herri osoan

zehar ibiliko gara, 10.000 biztanletik gorako udalerrietara iritsi arte.

Asmo hauek gauzatu eta zuenganatzeko asmoz, ekin genion, oraintxe urte t'erdí, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, elkarlanean erakusketa ekoizteari. Baina orain erakusketa herriz herri eraman ahal izateko Anaya-Haritz argitaletxearekin hitzarem n bat egin dugu, bere diru ekarpenari esker asko arindu delarik udal-erri bakoitzak ordaindu beharrekoa.

Esanak esan, orain zeurea da hitza!



HITZAK EZ DU ANTZIK JABOIAREKIN

A bdefattah Kilitok behin idatzi zuen bezala, hitzak ez du antzik jaboiarekin. Zenbat eta gehiago erabili jaboia, orduan eta urrituago eta gastatuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago. Beste modu batera esanda, hitza biziko bada nahitaezkoa da errepetizioa, nahitaezkoa jendearen ahoan behin eta berriro egon dadin. Jakintsu arabiar batek ere hala adierazi omen zuen: "hitza- ren iturriak isuri egin behar du bere ura, gas- tatu eta alferrikaldu egin behar du bere ura".

Esan eta berresan egin behar da hitza. Hortik kanpora ez dago bizitzarik. Errepetizioa da hitzaren ardatza.

Arabiar aldetik etorritako ideia horiek egiazkoak direla denok ikusten dugu garbi, edo hala ikusi beharko genuke behintzat. Izan ere, bi hizkuntza mota dituen lur batean bizi gara, eta hizkuntza mota horietako baten hitzak, oso erabiliak diren partez, bestearnak baino askozaz indartsuagoak eta bizkorragoak dira. Horregatik tartekatzen ditu hainbeste erdal hitz Euskadi Irratiarentzat bere etxeko euskaraxka flakatu eta agoni- koinan hitzegin beharra daukan pelotari edo karreristak; pelotari edo karrerista horrek *Campeonato de Parejasen eduki nuen yokoa* edo *Etapá reinie irabaztea gura neuke*



Argi-Egunkaria: OLAIDE

**BERNARDO
ATXAGA**

esango du, hots, burura etortzen zaiona, errepetizioaren indarra daukan hitz multzoa. Baina, jakina, ez da pelotari edo karreristen kontua bakarrik. Hain zuzen ere, zergatik jotzen dute erdarara Donostiako hainbat koadrila abertzalek? Bada, biltzen direnean, eta aipatu legeagatik, egun horretan egunkarian irakurritakoaz hitzegiten dutelako, eta, erne!, egunkariaren hitz berberak erabiliz. Eta, zergatik hitzegiten da gaztelera ikastola askotako patioetan? Jar gaitzen adi, entzun dezagun nola hitzegiten duten. Nola? Bada, loritoak bezala: etxean, kalean edo telebistan ikasitakoa berresanez. Eta, azken kasua jartzeko, zergatik zaigu gozoagoa guri, ez hain gazteoi, *cuatro por siete veintiocho* delakoa lau

bider zazpi hogeitazortzi parekoa baino? Argitu beharrik ere ez dago, gogoan dauzkagu oraindik lehengo eskolak, hango kantu eta kontuak.

Bai, errepetizioak bizitza ematen dio hitzari, erabilerraz bihurtzen du, eta horregatik da gezur Andoaingo sarreran txartel batek jartzen duena; horregatik dabil bizkor gaztelera eta makal euskara: jendeak -Andoaingoak bezala beste leku askotakoak, Asteasu barne- bere alditako gauza pila egiten dituelako euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: hitzegin.

HIZKUNTZAREKIKO LEIALTASUNA

E uskal Herriak bere hizkuntza be- reziarekiko, euskararekiko duen jar- rerran itxuran elkarren kontrakoak diren bi jarrera gurutzatzen dira. Euskara gorde nahi izatea, eta horretarako, euskara berritu, batu, garatu nahi izatea, bere betidaniko sena galdu gabe, tradizio- arekiko atxekimenduaren bitartez esplik- a daitekeen jarrera da. Datorkigunari eutsi nahi izatea, historiaren ildoari jarraipena eman nahi izatea, haria hautsi nahi ez izatea, mendeetako loturari gure orainaren bitartez etorkizunaren ateak zabaldu nahi izatea da.

Tradizioaren jarraipenean kokatzen den jarraera honekin batera ordea, beste bat ageri da indar betez gure artean euskara aipagai dugunean. Eta beste jarrera horrek ez du zerikusirik tradizioarekin, kultura moder- noarekin baizik. Hori bere oinarrietan, garapen teknolo- gikoan eta garapen horrek ustiaketa industrialean, guztiz berezkoa zaion injenieritza jarrerarekin. Jarrera honek agerian uzten duena zera da: garai modernoetako gizakiak duen ustea, edozer konpon daitekeela, edozer manipula daitekeela, edozertan eskua sar eta esku har dezakeela, bere modura tajutzeko eta moldatzeko, gizarteko feno- menoak, hizkuntza adibidez, teknikaren eta plangintza- ren bitartez molda ditzakeela.



Argi-Egunkaria: IONTXU

**JOSEBA
ARREGI**

Ez dago hain garbi, niretzat behintzat ez, bi jarrera hauek elkarren ondoan besterik gabe egon daitezkeen, elkarrengan inolako eraginik izan gabe, eta bakoitzaren helburua errespetatuz. Euskararen munduan dihardu- tenen uste isila ordea, hori da: bi helburuak batera gauzatu nahi izatea, zilegi izateaz beste, lor daitekeen zerbait dela.

Teknika bat erabiltzeak ez du ordea, bere objektua sekula bere horretan uzten, eralda- tu egiten du, eragina du bere izaeran. Ja- kintza modernoak aspaldi ikasi zuen hori. Teknikaren erabilerak ez du ez izadia, ez gizakia, ez gizartea, ez gizarteko edozein gertakari bere horretan uzten, aldatu gabe, bere izaeran aldaketarik eragin gabe. Bes- terik uste izatea inuxentekeria bat besterik ez da. Euskararen munduan, beharrezko be- harrez, gogoeta hauek alde batera utzi beharrezkotzat har- tzen ditugu, eta bere garapenerako beharrezkoa litzai- gukeen plangintzarako borondaterik ezaren adierazle bailiran.

Belaunaldiz belaunaldi hizkuntza batek jarraipenik izan dezan beharrezkoa dena ordea, leialtasuna da, hiz- kuntzarekiko leialtasuna, euskararekiko leialtasuna, eta niri ez dit oraindik inork argitu leialtasuna teknikaren bi- tartez nola planifikatzen den. Zuzen ote gabilta?



*“Gure bitartez, gure indarrez, euskara itsaso
urdin eta zabal bat izanen da.*

*Eta ordukoek, zuen eta gure oinordekoek
ur gozo bat aterako dute handik oparo”*

GABRIEL ARESTI (1933-1975)

AHOZ AHO, BELAUNEZ BELAUN: hitzez, berbaz, mintzoz gurasoengandik seme-alabenganaino. Hala etorri da hizkuntza gizaldietan. Batzuetan bizi, besteetan motel, askotan mehe. Ibai bat bezala. Gurasoak ditugu lehenengo ekarleak. Beren esanekin, beren kantuekin eta beren galde-erantzunekin hizkuntzaren mekanika abiarazten dute. Baina hizkera lanbide bat da, ikasi egin behar da. Eskolan hitzun txikiak beren hizkuntzaren historia eta gramatika ikasi eta hartan sortu diren lanak ezagutuko ditu. Familiak eta eskolak gai egiten dute, hitzunak bere sentimenduak, bere premiak, bere kezkek adierazi ahal izan ditzan, eta behar bezalako mintza-tresnak ematen dizkiote bere hitzak gizartean jaso, ulertu eta onartuak izan daitezen. Hartzaile txikia, urteen buruan, emaile bilakatzen da. Baina familia, eskola eta gizartea ez dira sistema biribilak. Batzuetan hutsegiteak gertatzen dira. Erakusketa honetan hizkuntzaren jarraipenean garrantzia duten zenbait puntu ikusiko dituzu. Euskara itsas zabal bat izango da: baina gure birtutez, gure indarrez. Ahoz aho emana, belaunez belaun hobetua.

EGITARRAUA

AHOZ AHO, BELAUNEZ BELAUN ERAKUSKETA

APIRILAK 23 - MAIATZAK 5 URIGAIN KULTUR ETXEAN

Astelehenetik ostiralera:	18.00 - 20.00
Larunbata:	12.00 - 13.30 18.00 - 20.00
Igandea:	12.00 - 13.30

APIRILAK 22 - MAIATZAK 10

Aita Larramendi ikastolan,
Ondarreta-Leitzarar ikastetxean
eta La Salle-Berrozpe ikastetxean

APIRILAK 23
19.30etan zuzenean
Kanal-On telebistan euskararen
normalkuntzari buruzko saio berezia

Euskaren transmisioari buruzko AIURRI
aldizkariaren gehigarri berezia

ATZOKO ANDOAIN ETA ANDOAINDARRAK HITZALDI SORTA IKASTETXEETAN.

60 URTETIK HONA HERRIKO HISTORIA
ETA PASADIZORIK EZAGUNENAK, HONAKO
HERRITARROK KONTATUTA:

- *Joxe Mari Amutxastegi*
- *Roke Ansa*
- *Iñaki Arregi*
- *Imanol Egibar*
- *Joxe Eizmendi*
- *Joxe Goikoetxea*
- *Bixente Olano*
- *Joxe Mari Olazabal*

SANTAKRUTZ JAIAK

MAIATZAK 3, ARRATSALDEKO SEIETAN
BEKOPLAZAN

GAZTETXOEN FESTA NAGUSIA

IKASTETXEETAKO GAZTETXOEN PARTAIDETZAREKIN

kantariak, txisteak, jokoak,
dantzak, pailazoak, bertsolariak,
trikitilariak... izango dira
Kike Amonarrizek
zuzenduta eta animatuta

Asteasu

KIWI LANDAKETA

Fruitu asko ematen dituzte hemengo arbolek

Zelanda Berriko fruitu berdeska da kiwia. Kolore erakargarria du, eta zaporea berriz, nahiko exotikoa. Duela urte gutxi ezagutu genuen, baina denbora gutxian, inguruko lursail askotan jarri dituzte kiwi landaketak. Iñaki Tolosak, Asteasuko bizilagunak, iaz hartu zuen zazpi urte inguru dituen kiwi landaketa, eta berarekin aritu gara fruitu eta arbola arrotz honi buruz solasean.

Hirurehun eta berrogeita hamar arbola dituzte hamar mila m2-ko lursailan, eta lehen gehiago zeudela adierazi digu Iñaki Tolosak: "Azken biru urteetan ez zituzten kiwiak batere zaindu". Inguruko beste kiwi landaketa handi bat Aizarnazabalekoa dela esan digu, eta handiagoak eta ugariagoak, Bizkaian eta Errioxan daudela gaineratu du. "Landaketa erosi genuenean ez genekien kiwiak nola zaindu behar ziren", izan ere, erosi zuten lursaila animaliak jartzeko nahi zuten "baina landaketa bertan zegoenez, zaintzea eta aurrera jarraitzea erabaki genuen".

Hemengo fruitua merkeagoa


Kiwiak, mahatsondoak bezala, ilaran jartzen dira, eta zurtoin baten laguntzaz zutabe batera lotzen dira. Arbolak otsailean inausten dira, eta gero, ongarrria eman eta zomorroen aurka babestu behar dira. Fruitua urriaren bukaeran edota azaroaren hasieran jasotzen da. Iaz hamar mila kilo inguru kiwi jaso zituzten, eta hasieran saltzeko zailtasunak izan zituzten: fruitu guztia batera heldu zelako, eta kiwiak zaintzen hasi berriak zirelako. Azkenean, kiloa be-

rragei pezetatan saldu zuten, "beraz, ezinezkoa da kiwiaren ustiatuntzatik bizitzea".

"Kiwiek ur eta eguzki asko behar dute"

Kanpoko fruitua berriz, hemengo baino txukunagoa eta garbiagoa da, eta ondorioz, garestiagoa. Hala ere, hemengo fruitua oso ona dela eta gainera erraz ateratzen dela esan

digu: "Gure landaketan, batere zaindu gabe, hamar mila kilo jaso baldin baditugu, pentsa zenbat atera daitekeen ongi zainduta". Aurtentzen ordea ondo zaintzen ari dira kiwiak: lursailan zeuden sasiak kendu eta landaketa garbitu dute, alboetan hesiak jarri dituzte, eta zuhaitzak urezta-tzeko sistema konpondu dute. Inausketa ere egin dute baina ongarrri artifizialik ez dutela erabiliko esan digu Iñakik: "Etxeko abereen simaurra eta karea bakarrik erabiliko dugu: arbola ongarritze-ko eta zomorroak uxatzeko". Bestalde, arbolak landatuta dituzten lurra egokia dela esan digu, kiwiek ur eta eguzki asko hartzen baitute, eta gainera haizetik babestuta daude. Aipatzekoa da kiwiaren arbolak arrak eta emeak izan daitezkeela, eta modu zehatz batean jarri behar dira arbolak fruituak eman ditzaten: ilara bakoitzean bost arbola emeren ondoren, arbola ar bat jarri behar da.



Mahatsondoak bezala lantzen dira

SAHATSA
 BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
 KONTSULTA NATURISTA
 Txermin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA
KIROLAK EDURNE
 Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58
ANDOAIN

SANTAKRUTZAK 96:

Erne, andoaindarrak, iritsi dira eta, jaiak!

Apirilak 30, asteartea:

19.30etan:

Jaien hasiera Olajauna Etxetik. **Pregoia Aitor Mendiluze bertsolariak irakurriko du.**

Kalejira Andoaingo dultzainariekin. Buruhandiak Kale Nagusian

20.00etan:

Sardina jana alondigan.

23.30etan:

Dantzaldia Trakets taldearekin.

Maiatzak 1, asteazkena:

10.30etan:

XVIII. kros herrikoia, Ignazio Ibar-guren Memoriala.

11.00etan:

Kalejira dultzainariekin.

12.30etan:

Andoaingo **judo taldearen erakus-keta** Leizaur parkean.

16.30etan:

Ume eta kumeentzako **txirrindulari lasterketa**, XIX. Santa Krutz Saria.

19.00etan:

Amnistiaren Aldeko Batzordearen danborrada.

20.00etan:

Dantzaldia **Alaitz eta Maider** trikitilariekin.

Maiatzak 2, osteguna:

KOADRILEN EGUNA-**BLUSEN EGUNA:**

11.30etan:

Koadrilen konzentrazioa Olajaunen. Txalaparta eta txaranga saioa.

14.30etan:

Bazkari herrikoia Bekoplazan.

17.00etan:

Kalejira Txalaparta txarangarekin.

21.00etan:

Koadrilen afaria espigoian.

22.00etan:

Rock kontzertua.

Maiatzak 3, ostirala:

SANTA KRUTZ EGUNA- **HAURREN EGUNA:**

10.30etan:

Udaletxetik Olajaunera ikurriñaren jaitsiera, Udalbatzak, txistulariak eta eskopeteroak lagunduta.

10.30-18.00 bitartean:

Haurren parkea Bekoplazan. Bitartean **Santakruz trenak** auzoa zeharkatuko du.

11.00etan:

Meza nagusia Gurutze Santuaren eliz parrokian.

12.00etan:

Kalejira trikitilariekin eta salda Errekaburu elkartearen.

18.00etan:

Gaztetxoaren festa nagusia.

19.30etan:

Buruhandiak.

22.30etan:

Zumeatarra elkartearen danborrada.

23.30etan:

Dantzaldia **Izotz** taldearekin.

Maiatzak 4, larunbata:

10.00etan:

Diana dultzainariekin.

16.00etan:

Artisauen erakusketa Kale Nagusian.

16.00etan:

Minimotoen pista Txoperan.

18.00etan:

Urki dantza taldearen emanaldia.

21.00etan:

Urretxuko Gojargi abesbatza Santa Krutz parrokian.

22.30etan:

Santa Krutz elkartearen danborrada.

23.30etan:

Dantzaldia **Iratxo** taldearekin.

Maiatzak 5, igandea:

10.30etan:

Diana dultzainariekin.

11.30etan:

Iparraldeko Sukanpil kantariak kalez kale, trikitilariak eta dultzainariak lagunduta.

16.30etan:

Leitzaran ibaiaren IV. jaitsiera.

18.00etan:

Sagardo lehiaketa.

20.00etan:

Bertso saioa Santa Krutz parrokian.

20.00etan:

Dantzaldia **Drindots** taldearekin.

FOTO

Moisés

ANDOAIN

URTETIK URTERA HOBEAK

Lagun artean egon nahi eta beheko kalera abiatu naiz arrat aldean. Leitzarango zubia ze harkatzen hasi naizenean nire aurretik neska-mutil koadrila topatu dut ilunabarreko paseoa lasai-lasai hartuz etengabeko hizketan. Metro pare batera egonik, ezin izan dut euren solasaldia entzun gabe aurrera egin. "Santakruzak" hitza entzun bezain laster atzetik jarraitzea erabaki dut, kuriositatez eta disimuloan, hizketaldiari adi.

Iazko jaiak ekarri dituzte gogora, eta ni neure burutazio partikularretan murgildu naiz, eurek kontatutako gertaerek, ahazturik nituen pasadizuak gogorarazi baitzikidate. Gaztetzeko bidegurutzean Maïndi iturrirako bidea hartu dute, eta nik herriz, Goierrirantzat jo dut. Haien atzetik jarraitzeko gogoia ere ez zait falta izan, baina gehiegizko jakin-minaz lotsatu eta lagunen zitarako bidean jarri naiz azkar asko.

Lagunekin topo egin dudanean, Santakruzak gora, Santakruzak beheara hasi gara. Aurtengo egitaraua inork begiratu duen galdetu dut, eta aurpegi arraroak ikusi ditut inguruan:

- Danborrada egongo da, erreka jaitiera ere badago. Ainboaren makilkada aritmikoak. Ikerren aurpegi izutua Leitzarango errekan barrena ur tragoaren ondorioz, goizaldeko kantu desafinatuak. Txaranga-ren atzetik koadrielen eguerdiko trafikoko geldialdiak, maïtzaren lehenengoko kirolari prestuak. Egitaraua jakin beharrik ez dago! -erantzun didate.

Urtez urte gero eta jai hobeak ditugu herrian. Egitaraua herriko jendeak antolatzen du, eta inprobisazioak ere badu lekuri eguneroko jardunaldietan. Andoaingo jai ofizialak Sanjuanak izan arren, nik neuk, eta nik



bezala askok, Santakruzak ditugu herriko jaitzat. Festarako ez dago Zaragozako talderik ekarri beharrik. Euskal giroa nabaria da, eta egunetan zehar non-nahi topa daitezke musikazaleak kalea girotzen.

Ingurura begiratu eta inoiz baino jende gehiago ikusi dut kalean. Mauroren zakurra ere hor bueltaka. Jai giroa airean soma daiteke, eta despistaturen bat edo beste ere badago, nonbait jaiak hasi direla pentsatu eta oreka mantendu nahian.

Maïtzako lehen egunetako euri ariskuari desafio egin behar izaten diogu maiz. Azken bi urteotan, udako egun herotan bezalaxe, atera izan gara galtza motzetan kalera. Euripean blai dantzan jardundako uneak ere izan ditugu askotan, eta horrelakoetan jende gutxiago izan da gure herriko jaietan. Eta jaiak bukatzean, euritsuak edo eguzkitsuak izan, inoiz baino hobeak izan direla inork ez du ezbaian jarriko. Gero eta jai hobeak ditugu gure herrian.

Kanpotarrak asko izaten dira, eta ongi etorriak, gainera. Urteko lehen jaiak dira, eta inguruan eta udako ibilbidearen lehenengo geltokia izaten da askorentzat. Urtean zehar, asteburuetan andoaindarron emigrazioa inguruko herrietara handia izaten da (herriari fideltasuna gordetzen diotenak ahaztu gabe), eta urtean behin besterik ez bada, kanpotarregandik Andoainen ere giroa badagoela gustura entzuten dugu.

Gure herriko jaietara etor zaitezten gonbitea zabaltzen dizuet. Kanpoan zareten andoaindarrei herriz, ardoak gorpuzteko denbora behar duen bezala, urterik urte jai hobeak direla gogoratu, datorren urtean ere hementxe izango gaituzue.

Amagoia Mujika

KIROL JANTZIAK

Litana

Ama Kandida erorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47

ANDOAIN

JOSE ANTONIO URBIETA

GARRAIOAK

URTE OSOAN

SU EGURRA

BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAN

Lege Zaharren Eparantza, 4 -2

ASTEASU (Gipuzkoa)

☎ 69 26 76 - 69 30 92

ELEKTRATRESNAK

SUKALDERAKO ALTZARIAK

AITZBELTZ

Arteta kalea, 1 eta 3

☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45

ANDOAIN

Asteasu

JOSE LUIS AGOTE: "ORDENADOREEK EZ DUTE GURE BIZITZA KONTROLATUKO"

Lur argitaletxeko maketazio
lanak egiten ditu



Macintosh-ak berrikuntzak ekarriko ditu buruen neguan

Jose Luis Agote Asteasu-
sun jaio zen duela ho-
geita hamabost urte.
Itzultzailea da ofizioz,
eta itzuli duen lan han-
diena Aintzinateko ma-
terialak historia liburua
izan da, UNEDerako.

Duela zortziren bat
urte, ordea, Bernardo
Atxagaren Obabakoak
liburua maketatu zuen
bere Macintosh-ean, eta
Erein argitaletxeok
berehala deitu zioten
ordenadorearekin tes-
tuak nola montatzen
zituen galdetzeko. Ge-
roztik askoz lan gehiago
egin du edizioaren mun-
dian itzultzailetzan bai-
no, "gaizki ordaindua
delako eta nekez geldit-
zen zarelako oso pozik
egindako lanarekin".
Gaur egun, Lur argitale-
txean ari da lanean li-
buruak maketatzen, eta
ordenadoreen mantenuaz
arduratzen da.

**Ai: Zeure kabuz ikasi duzu
ordenagailua erabiltzen eta
maketazio lanak egiten. Zein
abantaila eskaintzen dute orde-
nagailuek eta zein aurrerapen
ari dira gertatzen informatika
munduan?**

J.L.A: Informatika munduan
berrikuntzak oso azkar ari dira
gertatzen. Ordenadoreen aurrera-
pen nagusia zera da: datu asko
batera biltzeko eta azkar erabiltze-
ko aukera; bankuetan nabiz bule-
goetan abantaila handia ekarri du
horrek. Ordenadore pertsonalek ere
aurrerapen handia ekarri dute, jen-
deak etxean ordenadorez lan egi-
tea eta bere lanak diskete batean
jaso eta nonabi eta edozertarako
erabiltzea.

Lehen ordenadoreak jectorako
eta testuak idazteko erabiltzen zi-
ren batez ere. Informatika mailan
iraultza nagusia, nere ustez, Apple
etxeak egin du Macintosh ordena-
dorearekin: erabilera ikaragarri
erraztu zuen, pantailan ikusten
zen gauza bera ateratzen zen in-
primagailuan lehenengo aldiz, eta tes-
tuak eta irudiak aise konbinatuz,
autoedizioa sortu zuen. Bere in-
primagailuentzat aukeratu zuen Post
Script bizkuntza inprimaketa in-
dustria osoaren standard bilakatu
da. Egingo aurrerapen garrantzi-
tsuenak, berriz, koloreko irudigint-
zaz gain, biru dimentsioko irudi-
gintza, bideoa eta musika graba-

tu, editatu eta lantzekoa aukera,
modemez konektatzeko errazta-
sunak eta abar dira. Gainera,
egingo programak kalitate han-
dikoak eta erabilerrazagoak dira.

**Ai: Macintosh-aren aurrera-
penak azaldu dituzu. Egun, kon-
petentzia handia dago PC eta
Macintosh ordenagailuen ar-
tean: zein ordenagailu mota da
hoberena eta zergatik?**

J.L.A: Macintosh-aren asmaki-
zuna jende arruntarentzako orde-
nagailu erabilerrazak egitea izan
da. Bulegoko mahai baten metafo-
ra eginez, karpetak, dokumentuak,
zakarrontzia eta ikonoak agertzen
dira ordenadorean. Informatikako
bizkuntza bera eta programen di-
seinua ere aldatu egin zuen, eta
sagurik gabeko ordenadorerik ez da
egiten gaur egun. PCko MS-DOS sis-
tema eragilea zaharkitua geratu
da, eta Windows sistema eragileak,
berriz, Macintosh-arekin lehiatze-
ko asmatu bazuten ere, haren sis-
tema balioztatu zuen aldi berean.
Gaur egun inork ez du bitz egiten
kompatibilitateaz, eta Macintoshak
asko azkartu eta merketu dira. O-
rain diferentziak erlijio erakoak
dira, edo batekoa zara edo beste-
koa. Niretzat Macintosh hobea da
testu, irudi eta kolorearekin lan
egiteko: PCa beharbada hobea da
jectorako. Aurrerapen gebientsue-
nak Mac-etik PCra doaz. Bata bide
urratzaile da, bestea imitatzaile.

"Macintosh-ak iraultza garrantzitsua egin du"

Ai: Eta zein berritasun eskaintzen du Windows 95ak?

J.L.A.: Windows 95ak Macintosh-aren antzekoagoa izatea lortu du. Macintosh-ak orain urte batzuk 7. sistemarekin eskaintako baliabide asko orain lortu ditu Windows 95ak; 32 biteko memoria jestioa da berrikuntza nagusia eta ordenagailuari lan berezietarako txartelak eransteko erraztasuna, Plug & Play deitzen diotena. Teknikoki abantaila bakarra du, preemptive multitasking deritzana, hau da, 2 edo 3 lan aldi berean aiseago egitea, programak horretarako prestatuak badira, baina Windows munduan saltzen diren programa profesionalen %85a Macintosh-ean garatu eta Windows-erako konpilatuak dira. Macintosh-aren 8. sistemak abantaila hori eta beste bainbat berri eskainiko ditu datorren neguan, dagoeneko zatika eskaintzen dituenak. Berrikuntza horien prezioa da lehengo programa, tresna, periferiko eta txartel ugari arazoak emango dituztela Windows 95ean, eta ordenadore oso abaltu eta memoriaz ongi hornitua behar dela lan egiteko, hau da, saldu lehengoa eta berri azkar bat erosi behar dela.

"Internet-ek duen abantaila ia bakarra merkea izatea da; izan ere, oso geldoa eta miaka hastea konplikatu da, zabalegia da sarea"

Ai: "Internet sarean ez ba-zaude mundutik aparte geldituko zara", diote askok eta askok. Egia al da hori?

J.L.A.: Teknologia, hasieran, abantaila handia ematen duela-lakoan saltzen digute, baina gero ez da bain aurrerapen handia, beharrezko biburtzen da enprese-



Ordenagailuak, lanerako tresna, batez ere

tan. Internet-ekin gauza bera gertatzen da. Ordenagailu zerbitzarien sare erraldoi bat da, mundu guztiarekin komunikatzeko aukera ematen omen dizuna. Munduko biztanlego osoaren %25ak bakarrik dauka telefonoa, horietatik bainbatek ordenadorea, horietatik bainbatek modema... zenbaterik Internet-ekiko lotura? Hori al da mundu guztia? Internet-ek duen abantaila ia bakarra prezioa da: hileko kuota ordainduta gero, hamabost pezetako dei batekin munduko edozein txokotara bidal dezakezu informazioa. Posta elektronikoa praktikoa da, WorldWideWeb sisteman miaka hastea oso geldoa eta konplikatu da oraingoz, zabalegia da sarea. Sare hau ez dago oso kontrolatuta, eta beraz, informazioa lortzea, saboteatzea, zabaltzea eta antzeko gauza gehiago egitea posible da. Hala ere, bi ordenadoreen artean komunikatzeko modem soilez zuzenean lotzea bobea da, azkarragoa eta seguruagoa, nabiz eta garestiagoa izan, deia urrutira bada.

"Ordenagailu bat zertarako behar dugun jakinda erosi behar dugu"

Ai: Gero eta ordenagailu gehiago saltzen ari dira orain. Zergatik eta zein preziotan?

J.L.A.: Informatikaren mundua negozio handia da, eta ordenagailuak egiten dituzten enpresak multinazionalak eta oso konpetitiboak dira. Egun egiten diren berrikuntza asko negozioa zabaltzeko dira: CD Rom-a, Windows 95 edota Internet, esate baterako. Aurrerapen horiek tresna eta baliabide berriak eskatzen dituzte, eta baliabide horiek eskaintzen saiatzen dira enpresa guztiak. Beraz, ordenagailu bat erosi eta gero, baliabideak erosi behar dituzu egunean egoteko. Ordenagailu bat erosten dugunean, argi eta garbi jakin behar dugu zertarako behar dugun. Merkaturan balioa azkarren galtzen duten produktua dira ordenagailuak, gaurkoak ez du bitza balio bihar, teknologia kobratzen dizute, ez makinan balio duena.

Ai: Ordenagailuak etxe askotan ari dira sartzen. Ze ondorio ekarriko du joera horrek?

J.L.A.: Ordenagailuek eta Internet-ek gure bizitza kontrolatuko dutela esan obi da. Ez dut sinesten jendea Internet-era lotuta edota errealtate birtualaren kontu horrekin zoratuta ibiliko denik. Ordenagailuek ukimen sentsazioa ematen ez duten bitartean ez dago arriskurik: laneko tresna izango dira, batez ere, eta jendeak lan egitea ez du bain gogoko. Garrantzi handiagoa dute giza barremenek. Giza-kiia burutik jota dagoelako kontrolatuko gaituzte ordenagailuek, inoiz kontrolatuzekotan. ■

Andoain

AEROBIC-A: DIZIPLINA PROPIOA LORTU DUEN KIROLA

Dantzaren pausuak, gimnasiaren erritmoa

Duela urte batzuk modan jarri zen kirola da aerobic-a. Orduan, artista ezagun askok egiten zuten, eta arrakasta handia lortu zuen telebistaren bitartez. Jende asko hasi zen kirol hau egiten, aerobic-ak mirariak egiten zituelakoan. Gaur egun ordea, gorputza zaintzeko eta osasuntsu mantentzeko egiten den kirola da. Andoaingo Areski gimnasioko Bakartxo Arabaolaza eta Izaskun Forcada aerobic irakasleekin aritu gara kirol honi buruz hitz egiten.

"Kirol honetan, gimnasiaren erresistentzia eta malgutasuna, dantzaren dotoretasunarekin uztartzen dira", esan digute bi irakasleek. Jarraian egiten diren ariketa aerobicoen bidez, arnasketa erresistentzia indartzen da, eta ondorioz, bihotza indartzen da. Horrez gain, giharreen erresistentzia eta elastizitatea eta artikulazioen malgutasuna lantzen dira. Edozein adinetako jendeak egin dezake aerobic-a, baina bakoitzak bere mugak zeintzuk diren eta zenbateko indarra duen jakin behar du, eta horren arabera, egokiak diren ariketak egin behar ditu. "Gure klaseetan hamar pertsona inguru biltzen dira eta ondorioz, erraza da bakoitzari zer egin behar duen eta nola egin behar duen azaltzea. Gainera, erdi mailako zailtasuna duten klaseak antolatzen ditugu" esan digu Bakartxok.

Mutil gutxik egiten dute aerobica

Kirol hau emakumeek egiten dute gehienbat, baina hori Andoaingo kasua dela azaldu digu Izaskunek: *"Erreterian ere ematen ditut klaseak, emakumezkoei nahiz gizonezkoiei. Hala ere, hemengo kultura dela eta, gizonezko gutxik egiten du aerobic-a. Brasilen aldez, gizon askok egiten dute".*

Ordubeteko saioak

Areskin ordubeteko klaseak ematen dituzte, eta gutxienez, astean hiru klase egitea komeni dela esan digute. Klase bateko lehenengo hamar minutuetan, be-

roketa ariketak egiten dituzte, eta gorputza prestatzen dute. Ondorengo hogeit hamar edota hogeita bost minutuetan berriz, lan *aerobicoa* egiten dute: dantza pausu batzuk ikasten dituzte, eta gero pausu horiek bata bestearen atzetik egiten dituzte erritmoa handituz doan bitartean. Azkenean, koreografia osoa egiten dute erritmo bizian. Klasea bukatzeko, hamabost minutuz edo, giharreak lantzen dituzte: klase bakoitzean giharre zehatz batzuk. Gelditzen diren bost edo hamar minututan ordea, giharreak teinkatzeko ariketak egiten dituzte, *"oso garrantzitsua da hori egitea, giharreak ez gogortzeko"*. Ariketa guztietan arnasa ondo hartzea oso garrantzitsua dela gaineratu du Izaskunek. Bukaeran, lasaitzeko zenbait ariketa ere egiten dituzte.

Kirola egiteko era dibertigarria da



Osasuntsu egoteko modua

Koreografiak *funky*, *salsa* eta antzeko estilotakoak dira, baina gehienbat, *aerobic* klasikoa edo hutsa egiten dute: *aerobic*-eko betiko pausuak, alegia. Hala ere, egungo koreografiak dantzaren pausu gehiago dituzte. Bi asteen behin edota jendearen gustuaren arabera aldatzen dituzte koreografiak, eta material asko erabiltzen dute klaseetan: zinta elastikoak, pesak, *step*-ak eta abar. Musika gisa, *aerobic*-a egiteko prestatuta dauden eritmoak erabiltzen dute.

Garapen handia izan du

Estatu Batuetan sortu zen kirol hau, eta oso herrikoia izatera iritsi zen. Baina hasieran *aerobic*-a ez zegoen araututa, eta gainera, egiten ziren ariketa asko ez ziren egokiak. "Ondorioz irakasle askok lesioak izaten zituzten, eta ikerketa batzuk egin ondoren, *aerobic*-a egiteko arautegi zehatza ezarri zen" adierazi digu Bakartxok.

"Estatu mailan 89. urte inguruan erabat aldatu zen *aerobic*-a egiteko era: ikerketak egin ziren, ariketa batzuk egokitu eta beste batzuk kendu egin ziren, material berezia egiten hasi ziren, eta azkenean, kirola arautu eta diziplinatu egin zen".

"90eko hamarkada arte *aerobic*-a ez da gure artean arautu"



Izaskun Forkada eta Bakartxo Arabaolaza

Negu Gorriak taldeko dantzaria

Bakartxo Arabaolazak hogeita hamabi urte ditu, eta duela hamar urte hasi zen *aerobic*-eko klaseak ematen. Orduan ireki zuen Areski gimnasioa, eta esan digunez, bere kontura eta ikastaro askotara joanez ikasi zituen *aerobic*-a erakusteko ikasi beharrekoak. Hemezortzi urterekin hasi zen kirol hau egiten, eta orduan Donostiara joan behar izaten zuen. Izaskun Forcadak

hogeita bat urte ditu, eta duela lau urte hasi zen gimnasio berean *aerobic* klaseak ematen. Orduan irabazi zuen Euskal Herriko *aerobic* txapelketa eta estatu mailakoe-tan ere parte hartu zuen. Egun, *funky* dantza ere erakusten du, eta *jazz* dantza ikasten ari da. Aipatzeko da Nación Reixa eta Negu Gorriak taldeetan dantza egiten duela, eta azken hauekin abestu ere egiten du.



*ogi berezi eta artesauak
...
etxerainoko zerbitzua*

OKINDEGIA, S.L.
Lepoakada, 37 / E-48113 Bilbo
20159 ASTEASU / ☎ 693794 / 691197

OGI · GOXO



- TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Leherakada, 37 - ☎ 693294 - BILLABONA



BRONTE
ZENTRU
OPTIKOA

ZURE IKUSMENA
GRADUATZEN DUGU
KONTAKTU LENTEAK
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA



BRONTE
ORTOPEDIA

NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK,
PROTESIAK eta PLANTILAK
TAILERRA BERTAN

OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA
RPS. nº 53/96

AURRERA
TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL



JOSEBA

Altzariak

Kaleakiki, 6 Fax - Telf. 59 07 61

ANDOAIN



LOATZO MENDIRA IRTEERA. 1969

Ezkerretik eta goitik hasita:

Zutik lehenengo ilaran: Maribi Galarraga, Ione Nuñez, Mari Mar Chivite eta Maria Jesus Urreta; bigarren ilaran: Ana Maria Arregi eta Enkarni Iñurrieta; azken ilaran: Mari Jose Mendizabal, Edurne Mujika, Maria Angeles Gallego, ezezaguna, Txelo Romeo, Ines Sanchez, Maria Jesus Uranga, Arantza Gonzalez eta **Izaskun Simon**.

Eserita: Lurdes Descalzo, Txaro Martínez eta **Tina Godoy**.

Argazkia **Arantxa Sorondok**, Billabonako Aizkardi elkarteko partaideak, utzi digu, eta bertakoen izen-abizenak berak eta argazkian ageri diren **Izaskun Simonek** eta **Tina Godoyek** argitu dizkigute.

Loatzo mendian ateratako argazkia da. Aizkardi mendi elkarteak antolatutako lehenen-

gotako ekintzetakoa izan zen hura. Haurrentzat antolatu zuten irteera, baina ez zituzten antzeko irteera asko egin. Aipatu beharrekoa da Aizkardi mendi elkarteak aurten bete dituela hogeita zortzi urte, eta Loatzo elkartearen izena zuen taldetik sortu zen. Elkarte honek, mendi irteerak antolatzeaz gain, dantza ikastaroak eta txirrindularitza saioak egiten zituen besteak beste. Gainera, hilean pare bat mendi irteera eta autobusak antolatzen zituen, lehiaketa ugari egiteaz gain. Loatzo elkarteak gazteleraz antolatzen zituen ekintza guztiak. Horrezaz gain, emakumeek, haurrek bezala, maila berezi batean lehiatzen zuten.


Duela hogeita zazpi urteko argazki honetan, egun Aizkardirekin mendira joaten diren haurren guraso ugari daude.



ZUBi

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL



Zabala

Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

FABIAN DUPONT

20 urte; ikaslea; Bourges hirikoa (Frantzia)
Andoaingo La Salle-Berrozpe ikastetxeak antolatutako nazioarteko gazteen topaketetako partaide



- Noren etxean zaude Andoainean egun hauek igarotzen?

- Egia esan, ez dut beren ize-na gogoratzen. Baina oso ongi bartu naute.

**- Hau ez da Euskal Herri-
ra etortzen zaren lehenengo
aldia?**

- Ez biru urtetan etorri izan naiz, eta ezagutzen ditut pixka bat hemengo obiturak. Pasaian egon nintzen azkenengo aldiz. Han ere familia batean etxean. Enpresetan praktikak egitera etorri izan naiz. Aurten ere uztailean itzuliko naiz.

- Beste txokoren batzuk ere ezagutuko dituzu orduan?

- Bai, Donostia nabiko ongi ezagutzen dut. Lagun handiak egin ditu bertan.

- Eta gustatu al zaizu?

- Bai, asko. Jendeak oso barrera ona egin dit. Hala ere, gaztekeraz hobeto hitz egiten ikasi nabiko nuke, jendearekin barreman estuagoa izateko. Hemengo jendea asko gustatzen zait, oso atsegina da; berebala lortzen duzu jendearekin barremanetan jarzea. Jaiak ere izugarriak dira. Herri bonek beti erakarri izan nau. Etorkizunean asko gustatuko litzaidake muga ondoan lanen bat aurkitzea, hemendik gertu egoteko.

- Zure herriarekin konparatuz, ze ezberdintasun ikusten dituzu?

- Euskal Herria besterik ez dut ezagutzen, eta Espainia oso handia da. Frantzian gauza bera gertatzen da. Hango jendea, hala ere, ez da borren irekia.

- Ikasi al duzu euskaraz zerbait esaten?

- Bai, "agur" eta "bela". Azken hau ez dakit euskaraz den.

- Topaketa hauek zer esanahi daukate zuretzat?

- Europako batasunaren garaian gaudu, eta garrantzitsua da herrien artean barremanak izatea. Niretzat oso garrantzitsua izan da, eta etorkizunean nire lanerako ere baliagarria izango zaidala pentsatzen dut.

- Topaketetako beste gazteekin, portugaldarrekin eta greziarrekin, zer moduz konpondu zara?

- Oso ongi. Gainera, izugarri gustatzen zait era honetako abenturak: jende ezezagunarekin elkartu eta egun batzuk elkarrekin igarotzea.

- Zer moduz igarotzen ari zara egun hauek?

- Momentuz primeran. Gainera, hemen normalean euria egiten du, eta guri behintzat, eguraldi ona tokatu zaigu.

PERTSONAIA EZKUTUA



Maria Pilar Merketegi Eizpitarte billabonarra izan da *Pertsonaia ezkuttua* lehiaketako irabazlea. Pilarrek zuzen asko asmatu bezala, **Euskaldunon Egunkariko zuzendaria den Martxelo Otamendi tolosarra** zen gure pertsonaia ezkuttua.

Andoaingo Txoko erretegiak eskainitako saria oso gogo onez jaso du Pilarrek. Eskerrik asko, beraz, biei parte hartzeagatik, hala nola oraino honetan, inoiz baino gehiago, lehiaketan parte hartu duzuen guztiei ere.



MENDI IRTEERAK**ANDOAIN**

Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta:

Apirilak 28: Andoaingo ibilaldia: Leitza-Guratz-Uli-San Lorenzo-Urdelar-Andoain (8 ordu)

Maiatzak 4: Legazpi-Gorostiaga-Arrola-Legazpi (4 ordu)

Maiatzak 12: Yebra de Basa-Santa Orosia-Oturia-Otin (6 ordu)

Haurrentzako ibilaldiak:

Apirilak 28: Anoeta-Hernialde.

Maiatzak 12: San Miguel el Viejo-Valle de Ayala.

BILLABONA

Aizkardi mendi taldeak antolatuta:

Maiatzak 12: Lekunberri-Irumugarrieta (1.427m.)-Larraitz.

MUSIKA**ANDOAIN**

Buruntzaldeko abeslari eta txistularien topaketa

Apirilak 28: Partehartzaiak: Lasarteko Alboka abesbatza, Hernaniko Kantuz abesbatza, Andoaingo Alberto Agirre eta Intui abesbatzak, eta Hernaniko eta Andoaingo txistulari taldeak. Goizko 10.00etan elkartuko dira guztiak, eta hamaiketako gozoaren ondoren herriko kale eta auzoak zeharkatuko dituzte kantuan. **Bazkalondan kontzertu ikusgarria eskainiko dute talde guztiak parrokan elkartuta.**

SAN ISIDRO EGUNA**LARRAUL**

Maiatzak 15: Txiste afaria 21.00etan.

MAIATZA SALTSAN**ZIZURKIL**

Maiatzak 2-15: Jesus López Zulueta argazki erakusketa. Aldi berean **Patxi Otaegi eta Jesus Gonzalez** eskulturak egongo dira ikusgai.

Maiatzak 5: Andatza eguna. Mugan dauden herrietako jendeak hartuko du parte. Mendi igoera eta bazkaria egingo da.

Maiatzak 14: Isabel Agirresaroberekin ipuin kontaketa haurrentzat 15.30etan Kultur Etxean.

SANTAKRUTZAK**ASTEASU**

Maiatzak 5: jaiak Elizmendin

IKASTAROAK**ZIZURKIL**

Gitarra ikastaroa. Interesatuak deitu Kultur Etxera: 69 35 54

HEZKIDE ESKOLA. Donostia Euskararen Sustapena ikastaroa: EHko egoera linguistikoa aztertu, norberak bere herri edo auzoko, egoera aztertu ahal izateko tresnak eman, euskararen sustapena egiteko proiektuak gauzatzeko azterketa. **Norentzat:** euskararen sustapena helburu duten elkarre zein norbanakoarentzat. Edukiak: euskararen egoeraren analisia, beharrak eta proiektuak, eta lana bideratzeko zenbait irizpideen azterketa. **Izenematea:** apirilak 15-30. Tlf: 31 14 74 edo 31 14 75.

TOLOSALDEA

ZAHITASUNAK DITUZTEN LAGABETUAK

LAGUNTZEKO EGITASMOA

Tolosaldeko herrietan erroldatutako pertsonek 30 urte baino gutxiagokoak eta edozein heziketa mailakoak, iraupen luzeko langabezi egoeran baleude, eta lan munduan sartzeko laguntza zerbitzuan parte hartu nahiko balute eskaera orria bete behar dute, eta aukeratuak izango balira, ondorengo 40 orduetako ikastaroan har dezakete parte. Edukiak: elkarriketa okupazionala, enplegurako motibazioa, orientazio profesionala eta enplegua bilatzeko teknikak. **Izena emateko epea: apirilak 30.** Telefonoa: Tolosako udaletxea.

BESTE**ASTEASU**

Maiatzaren 12: Pello Errota ikastetxeak antolatuta **Herri Urratsera joateko autobusak.** Izenematea Kultur Etxean. 1.000 pezeta.

ZINEMA**BILLABONA**

GUREA ZINEMA ARETOAN:


Apirilak 26-27-28-29:
"Babe, el cerdito valiente"

Maiatzak 3-4-5-6:
"Sabrina"

Maiatzak 10-11-12-13:
"Sentido y sensibilidad"

Maiatzak 17-18-19-20:
"Pena de muerte"

Maiatzak 24-25-26-27:
"Copycat"



SANTAKRUTZ

jai zoriontsuak

opa dizkizue...

GOIHERRI

T A B E R N A

Kaleberria, 7 - 3. ANDOAIN
Partikularra, 590805 - Taberna, 594044

OTARTEKOAK ETA
PLATER KONBINATUAK

TAXI

24 orduak

908-676004

JAUREGI

- GARBIKARI DENDA
- MARGOTZEKO TRESNERIA
- HORMETARAKO PAPERAK

ANGURASUTEGI KALEA 6. ☎ 59 02 57
ANDOAIN

ESTETIK

A

• Gorputzerako
tratamenduak "GENETIK"
erabiliz

• Materia aktiboekin
konposatuak
"ZELULOTERAPIA"

Kale Nagusia 49 ANDOAIN ☎ 30 06 69

M

A

I

A

BAR DANENA

ZUMEA. 26 - TELEF. 591202 ANDOAIN

ONDO PASA JAETAN

TRUK

TABERNA

Berezitasunak:

ogitartekoak,
patata brabak eta
plater konbinatuak

Kale Nagusia, 49 ☎ 59 15 39 ANDOAIN

SAN CRISTOBAL

t a b e r n a

OGITARTEKOAK,
TRAINERAK
ETA GIRO ONA

Aingurasutegi kalea, 6 ☎ 59 29 02 ANDOAIN

GARBI

DROGERIA - LURRINDENDA

Ondo pasa jaiak

TELEFONOAK:

DENDA: 59 21 57

ETXEKOAK: 59 07 88 - 59 12 23

KALE NAGUSIA 18 - ANDOAIN



VTTVN

ARROPA

eta

OSAGARRIAK


Kale Nagusia, 12 Telf. 59 18 63 ANDOAIN

La Salle Berrozpe

I K A S T E T X E A
A N D O A I N

Aurtengo
Ertainetarako
eskaintzat.

Maiatza
hasieratik
matrikula
zaitez.



INFORMAZIOA:
La Salle ibilbidea, z/g.
☎ 59 05 57

OLASGASTI LORADENDA

Kalenagusia, 11 - ☎ 30 06 20 - ANDOAIN

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

muxu batez...
amatxo

MAIATZAK
5
AMAREN EGUNA